EGUNA JEL


Euzkadi'ren seme ona ixateko, beraren aldez bixitza emoteko gerturik egon biaŕ da.
(ARANA-GOIRI)

Lgo. urtia | 86'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. jorralla 11'gna. igandea | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

Gure gudariak, joaldi beroetan, leku ugari kendu eutsezan arerioari

Paxistak, egazkin barik, ez dabe adorerik eta indaŕik gure mutillen joaldiei eusteko.-Lekeitio, Elgeta eta Elorio aldetan alde bietako artilleri-joaldiak.-Eibar'tik Soraluze'ko guda-tokiak suagatu ziran.-Paxistak nekatuta eta makalduta dagoz.



EUZKADI'KO URI TA MENDIJAK NEGUAN.

AUŔERA!

Oraňarte arerioari eutsi ezińez ibili gara.

Arerio oŕek gure luŕetara ekaŕi zituzan-tramankulurik auŕeratu ta ilkoŕenei arpegi eta bulaŕ emon eutsen gure gudariak auŕerantz egiten galerazoaz.

Oraňarte geure luŕak zaintzen lanik izan dogu.

Orain arerioa da gure eusten alegindu biaŕ dana.

Gure gudariak, atzo egin eutsezan auŕerakadetan motz eta iebuŕ geratu zan arerio ori.

Indaŕez, bizi, gartsu ta adoretsu, agintarieugandik auŕera egiteko itza artu ebenian arerioari gañetik egin eutsen gure mutilak, lengo egunetak osatutako luŕetatik kanpora jaurtiaz.

Atzo gure mutilak, leoiak legez paxistak jo ta euren gain jarkiten ikusi genduzanian, auŕerako egunetako joaldietan pentsan gendun eta gure gudariak zoriontsu ta garaile urtengo diran sinismena gugaz jaubetu zan.

Ainbestekoak izan ziran, ba, atzoko joaldi labuŕak, baña indaŕtsuak.

Auŕera, gudariak!

LEKEITIO'N

Etzan goraberarik egon alde onetan. Gure gudariak, auŕerako egunetan legez. artileriaren suaz jo ta zigoŕtu dabe arerioa.

Onek ez dau bizitasun agerpenik egin.

Gure kañolen otsetara ixilduta geratu da, lenengotan pixkabat erantzuten asi danaŕen.

LLOŔIO'N

Lekeitio'n legez, gure morteruak jo ta ke atara dabe alde onetan. Arerioenak be erantzun dabe.

Gogoŕkiro eta geratu barik erantzun be. Guriak baña ez dira euren aufean ixildu eta bestiak baño sendoago ekin dautse.

ELGETA'N

Giupzkoa'ko eŕibaketsu onetan be

(Azkenengo oŕian daŕai)

Eta guk, zer egin geinke oŕelako arerio biŕintzale oŕeik gu azpiratu naiz datoŕkiguzanean? Gure eŕiak, ondasunak eta bizitza aldeztu; gure sendiak gorde; gure izaera guztia gaizkatu. Nikil utsak izango gintzakez, bestela. Ez daukagu beste biderik.

BAŔENSORO.

GUDA-BITARTEAN

Biotza izketan

Laŕaildian ezagutzen da ondoen gizonaren tinkotasuna. Ez da estuasuna lakorik gizabiotzaren sendotasuna erakusteko. Gure inguruan ekaitza sortzen danean, erauntsiaren erasoa gainditurik, biotz - tinko iraŕtea; ekaitz-bitaŕtean, azpitik datoŕkigun ugin-bultzadari eutsiz, itxas-arkaitza baizen zutik egotea; buru-gaiŕetik tximistak eta turmoiak buŕumbaka datoŕkiguzanean, len baizen makuŕgaitz eta eŕime jaŕaitzea... oŕa oŕ biotz-sendotasunaren agiririk bikañena. Zerk erasan leikio onelako gizonari? Ez ekaitzek, ez ugaldek. Gizon zutia ta makurgaitza dala benetan esan geinke onelako au.

Ez uste izan, oŕatio, gure artean onelako gizonak bakan-bakanak diranik. Ari oŕetako gizon asko doguz. Ara orain laŕialdia etoŕi. Ara estualdia sortu. Baña, len baizen tinko diraue gure gudariak; atzo baizen zutik eta makurgaitz jaŕaitzen dabe, euren oinak mendi-gaileŕetan josita. Nork azpiratu euzkotaŕen adorea?

Nork makuŕ-arazi gure mutillen tinkotasuna? Nork oinperatu gure gudariak? Ez aintziňako eŕomataŕak eta godotaŕak...; ezta be gaurko godotaŕak eta oraingo italiaŕak eta doistaŕak. Eŕime jokatzen zarie, mutillak, aŕano pola!

Egia esan, lenengo egunetan biotz ikaraka ibili giňan. Gudako zuŕunbiloan egundo sartugabeak ziran gure mutil asko; zeregin oŕeitan ibili gabeak euretariko geienak. Au dala eta, bildur giňan lenengo egunetan. Eutsiko ete-dautsoe eraso izugaŕiari? Ara gure ezpaia, autortu daigun. Baña..., bidebakoa zan gure zalantza.

Aintza, mutillak, zuei! Aintza Euzkadi'ren aldeztzale kementsuai! Zuen adorea? Zuen kemena? Ez dau neuŕirik zuen biotzaren sendotasunak. Aberiaganako maitasunak zuen biotzetan sortu daun adorea ta tinkotasuna da. Eta, zuen egikera txalogaŕia ikusita, Abeŕi ori, pozaren pozaz iŕibaŕezka dagokizue begira zoriontsu. Zelan ez, gero, zuek zarien lako semeak eukita? Aguŕ, gure gudari zintzoak!

* * *

Erdiragaria izan zan, benetan, atzo Bilbao'ko txaidietatik zeaŕ niňolala, begietaratu yatan ikusgaia Agura zartxu batek bi eroazan lokaritik tiraka. Beste bei bi, bariz aizeraxeagotik gizon gazteagoak; eta azkenengo onen alboan mutil gazte batek bizkarean uztari bat eta lantresna batzuk. Zarazta zoŕotza eragin eustan biotzak baseŕitaŕ areik buŕumakuŕ eta itun Bilbao'tik zeaŕ ikusita.

Jakin miňak zirikatu induan bizirо. Uŕeratu nintxakon gizon gazteari eta ia nundik etortzan itaundu.

—Zeanuri'taŕak gara —erantzun eustan.— Antxe daukagu gure baseŕia ta jaiotetxea. Baña, gure baseŕia zearo biŕinduta ikusi baño len, bertatik urten beaŕ izan dogu. Bei oŕeixek dira orain gure ondasun danak. An gelditu dira gure soloak, bedardiak eta olanak. Baŕiro itzultzen garaneko, ez dakit ezer aurkituko dogun. Bearbada, ez baseŕirik, ez ondasunik; ezer be ez.

Azkenengo itzakaz batean, negaŕ-malkoak azaldu yakozan gizonari begietara. Negaŕgaŕia da, izan be, au danan. Aŕxe da, ordea "fascio„'taŕen joera! Oŕelakoxea da euren izaera! Dana eŕe; dana sutu; dana biŕindu; dana zearo ezereztu. Afokeri utsean dabiltz eŕiaren aurka. Eŕiak biziti goŕotatzen dauz. Alan da guzti bere, eurek agindu gura; eurek nagusi izan beaŕ. Naiz-eta, oŕetarako, gizonak eraŕl; eŕiak sutu ta biŕindu; umeak eta emakumeak ezereztu... Madarikatuak!



GAUR BELGIKA'N

Degrelle eta Van Zeeland auŕez auŕe

Belgika'ren biotzean auteskundeak izango dira gauŕ.

Gizon bi aurkestuten dira auŕez-auŕe.

Degrelle eta Van Zeeland.

Bitzuok eta Vandervelde dira belgikaŕ politikearen eruatzalerik biŕi ta agirienak.

Irugaŕen au oraingoan ixilik dago. Auteskundeak minberatu ez nunbaiť.

Auteskundea nok irabaziko daben igartea ez da gaitza, azaletik be intzat.

Van Zeeland nagusi izango ete dan itxurea dago.

Ez da gaitza beretzat garaile izatea.

Agintzearen indaŕak eskutik ditu beintzat.

Oŕez gañera, Degrelle'ren adizkidetasuna ez da oraindik belgikaŕen biotzetan sakonkiro sartu.

Aspaldi onetan daroazan ibilpide eta eritxiak ez dira gañera guztien gogoko.

Paxistakeriaren atzetik dabilala ez dagigun aztu. Eta mundu ziaŕ begiratzen dabenak ba'dakie gauŕ paxistakeria zer dan eta nora duan.

Belgika baŕurako, eŕi bizitzarako Degrelle'k egin daikiana ez dakigu zer izan leiteken. Estaduen artean darabilezan bide baŕi eta joera aldakoŕetan zein aukeratuko lenken be ez da oraindik ezaguna.

Van Zeeland'en lana bai, oŕaitik. Aspaldi baletik Belgika'ren agintaritzea eskutik izan dau. Eta oraňarte beintzat, bide zuzenez eruan dau belgikaŕ eŕia, eŕikidien ustez.

Ogasun autuetan aitua da. Oŕetxek emon dauso bereziki ospatesunik geyen. Aspaldi onetan, izkuliei buruz eroan eta egin daben politikea be eŕiaren gogoko izan da.

Politika oŕen bidez belgikaŕ eŕia ondamenditik ataratia lortu dau. Geldi-geldi eta igaŕi barik ondamendi oŕetako bidean ziaŕ joyala ezin ha ukatu.


Degrelle eta Van Zeeland artean eŕiak nor aukeratuko daben igartea gaitz ezta.

Van Zeeland'ek Belgika eŕi guztien kutun izatera eroan dau. Degrelle agintaritzara igotekotan besterik izango litzake.


Eŕiak ba'daki ori. Degrelle'ren asmoak ezagutzeko astia izan dau, azkenengoetan erabili dituzan aŕokeŕen bidez batez bere.

Bake-miña eta paxistakeria, biguatasuna eta zitalkeria auŕez-auŕe ikusiko dira gauŕ, katoliko bi onein buŕukan.

Eta eŕiak paxistakeria bastertuko dau, itxurea danez.



Euzkadi'ko guda-oñetan olakoxe ikuskizun edeŕ-samuŕak izaten dira igandetan.



EUZKADI'KO URI TA MENDIJAK UDAN.



EUZKADI - EŔIJETATIKO IZPAŔAK

Elgoibar

Ezin, ezin iñolaz, gure eŕi-txokoaren irudia burutik kendu. Zine bertan baño ere azkaŕago ta garbiago darabilkigu irudimen buru-baŕuan maite-basteŕen argazkia.

Orobat elgoibartaŕen oldozmena auŕea-auŕe daukagu. Nundik eta nola ote diran etxetik uŕun eŕitaŕok egunoro degu buru auzte.

Egunetan izpaŕ beltzak eŕitaŕon gain. (Durango) Tabira uriko ondamendian, egazkin fazistok, elgoibartaŕ bi erail dituzte: Nnzueta ta Unzueta'taŕ Terese, E. A. B.'ko bazkide zintzoa; eŕitik uŕun fazistak bidali zuten oraindik ez luzaro, ta oŕa eriotzak nun aŕapatu duan. Suarez ta Etxebeŕia'taŕ Gotzon, gaztea, gudaritzan zegoana; oŕa onen eriotz zoria ere.

Otoi beroak zuzendu ditzagun Goi-Jaunak aŕtu ditzan. (G. B.).

Ez degu, ez, elgoibaŕtaŕok izaŕ onik egazkiñen auŕka. Lekeitio'n, elgoibartaŕ umetxo ezpatadantzari odola; gero Markiña'n; orain Tabira'n.

Jaunaren naia bete bedi.

卐 卐 卐

Guda oñean ditugun mutilak, zertan ote diran kezkarik asko izan degu egunetan.

“Loyola” saildikoak aguŕtu ditugu ondo ta alai ala ere. “Aŕasate” basetxeko gaztea—Deun Kepa balerakoa—galdu dutela samin diote. Ez da izpaŕ ona. Otoi, Jaunak eŕuki dezan.

“Abelaneda” saildian arkitzen dau Mendaro'ko Garitaonandia'taŕ Iñaki gaztea ere aguŕtu degu. Oso ondo Jaunari ezkeŕak.

“Amayur”'koak Asturias zeaŕ ibili ta naiko zalapartaz eztu egunetan ibili aŕen, guztiak ondo dira. Aguŕtu ditugu geienak, osasuntsu. Nere lagun berezi, Gorostiza'taŕ Marka, zauritua, baña arin, ikusi det. Laxter zearo osatuko al aiz, Marko.

“Euzko indaŕan” darabilen San Martin'daŕ Nikole, laŕi zamaŕ ibilia dala jakin det, baña ondo dagoala ere bai det izpaŕa.

Orobat eta oso ondo aguŕtu dut, Zuloaga'taŕ Julen gaztea.

卐 卐 卐

Etxetik uŕun, etxea beti gogoan. Baña Abeŕiaren laŕitasunak oraindik erneago gaitu.

Bakoitzak geure eginbeaŕa bete, ta garaitza ezkuratuko degu.

卐 卐 卐

Egunak ziran aiek. Igezi'k jo genduan Lekeitio. Bertarako giñalakoan, eta geroz Bermeo'ra juan beaŕean izan nintzazun.

Egun oroigaŕiak aŕantzale aŕtean ere, noski.

Baña... aguŕ Bermeo, aguŕ egin eta ara egunetan Gernika'n.

An, emen egiten ari geran zoŕak ordaintzeko ainbat, ez dakit noiz eldu nezaken.

Biotz onak diran diña, ezin ezkuratu nezake opalgaŕi lez ordaingaŕi.

Ezkeŕa nai nuke. Bertatik aguŕ eta ezkeŕik asko.

IXAKA.

Euzko-Gudarostea, Gernika.

Bermeo'tik

ITXASOTIK.—Gure aŕantzaliak pozik dabiltzaz. Len txitxaŕoa ugaritsu porturatuten ebien. Orain, bokartak, kik egin dautsoe eta bai aŕantza edeŕak ere koixu. Ara ontziyaren ixenak: Donostia'ko “Ama Santa Ana”, Mundaka'ko “Karmen'go Ama” eta Bermeo'ko “Abeŕtzalia”. Oba, oba. Bai “igali” baŕiyagaz gozia ere kendu.

ITXAS-LAPUŔAK. — Egunotan Bermeo eta Lekeitio bitartian ibili dira españaŕ itxas-lapuŕ madarikatuak. Aŕantzaliari bilduŕik emon deutsoe, eta bai etxeratu ere eragiñ ontziyari.

ITXAS-GUDARI OTOI.—Lengo astian ixan dira uri onetan “Nabaŕa” euzkotaŕ guda ontziyan euren bixia galdu dabienaren mariñel aldezko elizkixunak. Urtzi ona goi-zeruetatik lagundu egitsazu eta betiko atseden donia emon.

NEKAZARITZA. — Gure baseŕitaŕak kexuz dabiltzaz eŕabun edo patatiari jaurtitzeko “sulfato de cobre” deritxon osakirik ez ei-daukoe ta. Nardiz luŕ arlo zaingo argiya: janari biaŕezko au ugaritsua ixan dagin ez lei luŕ-langiliari eskatuten dabena emon?

DABILTZAZANAK. — Emetik ikusi doguz gixarte arazo eta ostantzeko egin kixunetan etoŕita Uriarte'taŕ Eustaki ondaŕutaŕ jaupari eŕizalia. Itxas-guda-ontz. buru dan Loiola'taŕ Kepa eta Basteŕetxea'taŕ Pantzeska españaŕ zuzentza batzordekoa.

“UZTARO”.—Agiŕe'taŕ Toma “Baŕen soro”ren idazti polit ikasgaŕi au Batzoki'ko kontzerkiak dauko 5.50 laurlekoan salgai.

Euzkotaŕ euzkelduna ezin da geratu liburu mamintsu au erosi barik. Ain polit ta sakona da. Ikasi zeure elia abeŕkide.

JAYOTZA.—Ugarte'taŕ Julen eta bere emazte Meñaka'taŕ Nekane'k alabatxu edeŕ bategaz geitu dabe euren sendi abeŕtzalia. Poxpolintxo oneri Miren Karmele ixentzat ezaŕi deutse ugutzaukeran. Zoriyonak.

URKIDI



NASKALDIJA

MOLA'REN ZEMAYAK

Euzkadi osuan deuseztu biaŕ dauala-ta agertu ixan yakun Mola bijozge ankeŕak zemayak-zemai egiten diñardusku. Zemayak eta zeozer geyago egiten be bai: guda-izkilurik erailkoŕenakaz oldaŕtu ta aguraetatik umerañokuak erailten.

卐 卐 卐

Mola, Queipo ta Franco bera be, Hitler eta Mussolini'ren otseñak dira: Alemania ta Italia'ri salduta dagozan abere-gogodun ixaki galdu batzuk. ¿Gixonai esateko-ta, itz gogoŕegijak dirala? Ba liteke gogoŕak ixatia. Gogoŕak dirala nai bigunak ixan gixona irainduteko ez doguz esaten, gixon-ixenaz agertuten diran basati-anizeko oŕeik egiten dabezan basatikerijak gaiztetsiteko baño.

卐 卐 卐

Paxiotaŕak ekaŕi ixan dauskuben guda onen edestija idatzi biaŕik ez dago.

Edesti au, baŕiro idatzi barik be, ondo ikasita dauko eŕijak. Onduen, baña, euzko-eŕi jasankoŕak.

卐 卐 卐

Paxiotaŕen kenerala dan Mola, egunotan Euzkadi'n daukagu. Euzkadi'ra etoŕi zan, Euzkadi deuseztu ta betiko ondatuten etoŕi be.

Eta bere asmo deungia auŕera eruateko, Hitler eta Mussolini ugazaba eŕi lapuŕekandik guda-izkilubak guda-izkilu aŕtu ebazan, baŕa alogereko gudarijak diran doistaŕ-italiaŕak be. Eta alogereko gudari oŕekin batera, Apirka'ko mairu gixagaxuak...

卐 卐 卐

Eta Españi'ren osotasuna aldeztuten dabiltzala esaten daben paxiotaŕen Mola keneralak, alogereko gudari gusti oŕeik aŕtuta, euzkotaŕen auŕka oldaŕtuten asi zan. ¿Gudoñetan bakaŕik?... Gudoñetan bakaŕik ez, guda-atzetijetan be erijotzea bilduŕ barik ercin ixan dau-ta. Bijozduna ala ainbakua dan ez dakigu. Bijotzik ba-lau, ixan, Mola'ren bijotza Anboto'ko aŕxa baxen gogoŕa ixango da...

卐 卐 卐

Durango'ko uri ospetsuba luŕ-jota jaŕi ixan dabena, Mola'ren bijotza ixan zala esan geike, Mola'ren odol-egaŕijak Durango'ratu ixan ebazan doistaŕen egazkiñak ixan zirala...

Eta Durango luŕ-jota laga ixan eben durangaŕ biztanle otzanak suaga azpijetan iloztuta...

卐 卐 卐

Mola'ren ankeŕkerija uŕiñago be eldu ixan da. Aŕatia-ziaŕ ibili ixan da, ta soluetan lanian ebiltzan emakume-gañokuak goŕik berako berunbilez iloztuta laga.

Italia ta Alemania'ri salduta daguan keneral otoi oŕen bijotza, bijozduna ba-da beintzat, basamoŕturik-mortubeneko leoi goseti odol-zaliarena baño be abere-bijotzagua ixango dala esan leike. Mola'ren odol-egaŕija, ase-eziñeko egaŕija dala bere egunoroko egintzetan ikusten da, ba.

卐 卐 卐

Egin ixan dabezanak eginda gero, beste zemai bat egiten dausku: Bilbao'ra etoŕteko bidia azke laga dagijogula.

Orain aŕte ixan dauzan odol egaŕi gustijak baño asekatxagua dala dirudi azkenengo agertu dauskun egaŕi onek: ¡Bilbao'ra etoŕteko bidia azke izteko!

卐 卐 卐

¿Burutik egin ete-yako?... Alan dirudi. Bestelan, burutik eginda ez daguan gixonak egiŕeko zemayak ez dira zemai oŕeik. Mola Bilbao'ra etoŕi daikeguntzat, ¿bidiak leunduten geu?... Euzkadi'rik geyena ondatuta laga dauskun gixon bijozgiari, ¿geure etxe ta sukaldietako berua ta zori jona opalduten geu?...

卐 卐 卐

Mola'k ori uste dau: burubak apal-apal eginda zorijon opaka biderdira urtengo gayakozala. ¡Mola gaxuak egiten yauskuzak amesak!...

Bera, baña, gogoŕ be gogoŕ dago berian. Bilbao'ra etoŕteko bidia azke lagaten ez ba-dautsagu, Bilbao gustija eŕeko dabela diñosku. Bilbao ta Bizkai gustija eŕetako beste su ta geyago be bai dabezala-ta... ¡Au zemayaren gogoŕa!

卐 卐 卐

Mola'k subak-su ixango dauz... Eta subokaz Bilbao ta Bizkaya eŕe ta kiskaltzeko gertu dagozan su-emoliak be bai biaŕba.

Baña Bilbao'k, Mola keneral etoyaren subak amatetako-ta, Mola'k ez daukazan su-amatatzaliak daukaz, ludijan diran uragalarirík zintzo ta ospetsubenak. Beraz, Mola bijozgiaren amesak eta amesetako su oŕeik itzaliko dabezanak, bilbaotaŕakin batera, paxiotaŕen auŕka jagi ixan diran eŕi-aldezle gustijak ixango dira. Bai, Mola; ¡eŕi aldezle gustijak!... Beraz, Mola, ez dautzugu Bilbao'ra etoŕten laketuko. ¿Zematu egingo dozuzala?... ¿Eta zer?...

Gizarte Auzi Buruz

Goŕoto eta buru maitekeria

III

Zoritxaŕez, bein baño geigotan ikusia naiz oporketak. Goŕoto ta buru maitekeria baño lagun oberik ez da oporketak sortzeko. Gizonaren lagunik txaŕenak dira eta gizarte auzi buruz bearduten gizonentzat zer esanik ez. Goŕoto ta burumaitekerien bidez egiten diran kalteak aundiak dira ta bereziki gizarte auzian, naiz langilea edo nagusia goŕoto ta buru maitekeriak menperatzen dituztenean.

卐 卐 卐

Nagusi eta langile alkartasun agintariak asko ta askotan izaten dira oporketaren eŕudun...

Agintariak zuzentza zale izan bear du eta kistaŕ agintariak zer esanik ez. Askotan zuzentza nor bere aldetik ez ba'dago; goŕoto ta buru-maitekeriak geigo lezake ta zuzentza arauz jokatu beaŕean, goŕoto arauz jokatzen degu ta gizarteari dakarzkion kalteak neurkaitzak dira.

Mota bateko langile alkartasunak eta nagusi alkartasunak ba'lira, ezpairik gabe gizarte auziak eŕaxago zuzenduko l'rake...

Prankotan ikusia naiz, langile alkarte batekoak oporketa bukatu nai ta bestekoak ez. Lenago ezetzean zegona zortzi egun igaro ondoren baietzean eta baietzean zegona ezetzean ta ez da aldatu auzia zortzi egun auetan ez langile ta nagusi aldez. Zer dala ta jazokun au? (Langile alkartasunagatik diotena, irakuŕi ezazu nagusi alkartasunagatik ere.)

Langile alkartasun artean boŕoka sortu da ta bakoitzak gurendaren amaŕekoa jaso nai du ta oporketa ez da amaitzen langile ta nagusien kaltez ta langile nagusi arteko goŕotoari bide emanaz...

* * *

Nagusiak ere ba'dira langilea oleatik b'altzeko gogua daukatenean, goŕoto ta buru maitekeriakin jokatzen dutenak. Luzarora geinean galtzale ateratzen ba'da ere. Langile artean bizi bear ba-da, goŕoto ta buru maitekeriarekin jokatzen duen nagusia eŕuki det. Izkilu txaŕagorik ez dago.

Goŕoto ta buru maitekeri arauz jokatzen duen nagusiak asko obea du nagusi izatea utzi ta beste lan bateri ekin, berentzat eta gizartearentzat ere.

Askotan, nagusia dala ta beste gabe langile alkartasunak edo agintariak nagusi oro berdin neurtzen dituzte ta ez da zuzena.

Neuŕi gaŕantzizko bat artu baño lenago gizarte arazoetan, begiratu bear da lenago nagusi oŕek gizarte arazoetan nola jokatua dan. Nagusiaren lenagoko egintzak kontuan euki bear dira, goŕoto bidez ta arinkeriz jokatu gabe.

Neoni ere gertaera asko ikusia naiz gizarte auzi buruz. Orain dala ilabete batzuek gertatua da edestuko detana.

Olea bateko nagusiak langile bat aienatu du lanik ezagatik. Jakiña, gaurko legeetan ezin leike langilea aienatu zio zuzentzarekin ez ba-da. Langile nagusi artean erabakitako lan oñariak bi aldien aburuz ontzat artuta daudelako.

Nagusiak agertu zizkan langileari aienatzeko zioak, baña, langilea sinisge atera zan nagusiaren idazkolatik. Aienatuta ogei bat egunera beŕiro nagusiak deitu zion langilari lanean ekiteko. Amabost egun izango zan lanean ari zala, “Jurado Mixto”tik deitzen diote nagusiari, esanaz, langileak eskatzen zuela beŕiro lanean ekitea, lanean ekiteko bere eskubideak agertuaz.

Nagusia aŕituta geratu zan eta langile alkartasuneko ordezkariari deitu zion gertatzen zana adierazteko. Ordezkariak ere deitu zion langileari, eskatuaz bere jokaeraren zergatia agertzeko.

Langilea nagusiaren idazkolaratu zan ta argi ta garbi edestu zion berak euki zituen zioak. Onela jaulki zion langileak nagusiari.

“Nagusia: Barkatu, aŕen, egin detana. Ez nuen uste neri lanera deitzea asmo onez egin zendunik; ba-da, egun batzuek lanean jardun ondoren beŕiro aienatzeko asmoz deitu ziazula uste nuen, langile auzian darabilzkizu nasmoak langilearen kalterako eramanaz; neri lanera deituta egintza onekin beŕiro zeure aldez ta langile kaltez jokatzeaŕen.

Ezagutzen det oker negola eta zintzotasunez jokat udezula ta auŕerantza zintzo jokatuko det langile eskubideak zaituaz ta nagusiaren aldetik dauzkaten bearkunak beteaz.”

Nagusi onek goŕoto bidez jokatu izan ba zuen zer gertatuko zitzaion?

Beretzat kaltegaŕi ta langile ta gizartearentzat ere bai.

卐 卐 卐

Irakurle: Ez uste izan ikasbide au edestu dizutela nagusi aldetik begiratuta. Ez Uste det nagusi langilearentzat ongaŕi izango dala edestu detana; ba-da, guziontzat dauzka ikaskisunak.

Langile ta nagusi asko ikasi beaŕean gaude gizarte auzi buruz, nai ba'degu auŕerantza alkar maitasunez bizi.

MENDI LAUTA

(Jafaitzeko.)

ERRIEN AUTUAK

Txekoeslobakia bere buŕuaren jaube

Benes'en ibillerak eta Entente Txikia

Belgrado.— Politikoen aŕtean uste danez, Benes jaunak, Txekoeslobakia'ko lendakariak Belgrado'ra egin daben osterea Entente Txikia banandduago egin ez daiten izan da; eta Yugoeslabia'ko eŕegegaia ta Yugoeslabia'ko Agintari Nagusi dan Paul'ek Benes jauna'ri aitzen emon dautsonez Ungria'ren eta Yugoeslabia'ren aŕteko itunbena, Italia'k nai daben moduan ez da egingo.

Prantzia'k Lateŕi oŕein aŕtean alkaŕi laguntzeko itunbena egitea nai dau, baiña Yugoeslabia asmo oŕen aldeko ez da ta, Benes lendakariak asmuoi ez dautse Belgrado'n azaldu; Txekoeslobakia'n ba-dakie Galeazzo Ciano'k Prantzia'ren asmuoi deuseztu ebana.

Paul Eŕegegaiakin izan daben lau orduko baŕiketaldian eta Yugoeslabia'ko Gobernu Buru dan Milan Stojadinovic'kin egin eban jardunean, Yugoeslabia'ren eta Italia'ren aŕteko itunbena izenpetu ostean, Entente Txikiaren eralkundean agertu ziran itzebaiak, osotu ta bete dauz ausago Benes jaunak.


Txekoeslobakiaŕ gizontxu, Benes jaunaren ostereak Yugoeslabia'n Entente Txikiak daben entzuteŕ biztu egin dau; ori olan danaŕen politika zuzendariok Entente Txikioi atontzea nai dabe.

Benes'ek eta Txekoeslobakia'ko Erbeste-arazo Arduradun Kamil Krofta'k, Yugoeslabia'ko Gobernu Buruakin jardun luzea egin ei eben, agintariok aitzen emon ebenez; lateŕi bioi yagoku ezan autu ta auziak arakatu ei ebezan. Txekoeslobakia'ko lendakari oŕen ikeŕa Yugoeslabia'kin daben adizkidetasun-sendagaŕi izan ei da, agintariak eurak aitzen emon ebenez.


Lateŕi oŕeik alkaŕekin daben zerikui ta adizkidetasun-agerbide izan daiten, Yugoeslabia'ko Paul eŕegegaiak, mayatz azkenetan edo bagilaren lenengoetan Txekoeslobakia'ra osterea egingo dabela iragaŕi dabe.

Zagreb'tik eldu diran izpaŕak diñoenez, gabaz kroaziaŕ abeŕtzaleak ageŕaldia egin eben; 1.500 notin inguru Benes lendakariaren, Entente Txikiaren eta Kroazia'ren Azkatasunaren alde ta Gobernua'ren naxista-jokararen auŕka agertu ei ziran; Gobernuak Italia'kin egin daben Itunbenaren aurka bizi bizi agertu ei ziran.

Eŕtzaiñak banandu ebezan ageŕaldian etozanak eta asko atxilotu ei ebezan. Yugoeslabia'ko Gobernuko lendakariaren Italia'ren aldeko eŕiketa burubideen auŕka, ingiak banandu ebezan; paperotan kroaziaŕei Txekoeslobakia'taŕ azkaltzaletasunari lagundu eikiuela ta prantzetaŕekin alkaŕtzeko alegiñak egin egiezala eskatzen yakoen.



Aizkoŕi menditaŕtia, gaur, paxista ankeŕen menpian.



BILBAO'KO izpaŕingiak

“Euzkadi”

Mendiorlegi'taŕ Maren idazliaren idazlanaz asten da lenengo zeŕendea.

Paxiotaŕak gauza bat esaten dabela diño, ta beste era bateko egintzak egin.

Oraingo guda au, uskurtzea aldeztuteko egiten dabela esan dabela, diño. Eta Euzkadi buruz egiten diñardubena, baŕiz, euzkota'en benetako uskurtzeari gudea egitia baño ez dala. Benetako uskurtzalia dan Euzkadi'ri goŕotorik goŕotuenaz oldartu ten ei dause ba, ta jauparirik aguŕgaŕijetarañokuak erail.

Lenengo aldijetan, orbanik-orbanenaz zuzutsa orbandubaz, lag'z atazko erailketa igungaŕijei epaŕ lagijaren ixena emoten ei-eutsen. Orain, ostera, lagi-magi barik egiten ei-dabe egin al daben kalte gustija: egazkiñetatik botaten dabezan suaga-berunbilakaz. Oŕa, oŕ, baŕi baŕi, Durango'n egin ixan ebena: jaupeak egiten iñarduben jaupari biren erailketea ta beste amaika lekaimerena. Ori ta beste berein uri ta basuri gentzatsu suagaz apurtu ta euretako biztanle e ugiak erailtiari be, baña, paxiotaŕ guzuŕtijak, uskuŕtza aldezko erailketeak ditala esango ei-dabe.

Fuero edo askitzazko eŕi oturaen aldezliak dirala ei-diñue. Eta alan be, euren egintzetan, euzkotaŕen euzkerearen auŕka agertuten ei-dira.

España'ren osotasuna aldeztuten dabela be, abuak zabaltzen dabezan gustijetan entzuten ei-yake. Euren egintzetan ikusten dogunak, baña, beste egi oneik erakusten ei-dausku: Mallorca eta Pitiusa ugartietan italiaŕen nagosiŕasuna; Canarias'en, doistaŕena. Eta geyago be bai: Riff, Riotinto ta abaŕ'ko miatzak eta enparauko ogasunak Mussolini ta Hitler'i eruaten lagatia.

Paxiotaŕak gauza bat esaten ei-dabe, ta beste bat egin.

“Tierra Vasca”

Gayda'taŕ Birkili, italiaŕ idazliatzaz idazten dau. Ospetsuben ixena irabazijaz duan idazle au, “Giornale d'Italia” Mussolini'ren izpaŕingijan idazten daben paxiotaŕa dala diño.

Eta idazle onek idazten dabena, igaŕle ospetsu baten irakaskijak ixan oi-daben ospiaz irakuŕten ei da, ta alantxe zinistu be. Birkili, baŕiz, berenez ezertxu be ez ei-da. Birkili'k idazten dabena, Mussolini'k oldoztuten dabena ixaten ei-da, ba, Birkili Mussolini'ren otsein otzan bat baño ez dala ta.

Mussolini, jainkoixun antzo agertuten daben gixona ei-da Italia'n. Eta jainkoixuntzat aŕtzen daben gixonak esaten dabena guzuŕtituta geratu ez dedintzat, Birkini gixagaxua auŕetik imiñi ixan ei-dabe. Eta Birkili'k, ondorengo bilduŕ barik esaten ei-dau esan biaŕ dabena. Edo argijago esateko, Mussolini'k esatia gura daben gustija. Ondo urtetan ba dausa, Birkili'ren ospiak asko irabazten ei-dau. Txaŕto urtetan dautsanian, be, ospetsuben aŕtian geratuten ei-da.

Birkili ta Mussolini, buru batetik ezkeŕtako soin bi ei-lira, ba, ta besterik ez. Eta buru ori, Mussolini'rena ei-da. Idazle-ospia, ostera, Birkili'rena...

“Lan-Deya”

Guda atzetija buruz idazten dau lenengo idazlana. Azkenengo eŕi-aldeztzaren agindubaontzat aŕtzen dabela diño, dei ori gusti-gustijentzat dala-ta.

Alan be, baña, asko ta asko ei-dira urlija ta berendijaren babespian osendubaz gudoñera juan barik geratu gura ditanak.

Guda-atzetijan jazoten dana, lotsagaŕija ei-da ixan be. Gastedijarik edeŕenez bete-bete eginda ikusten ei-dira Bilbao'ko igelestoki ta enparauko jolastokijak. Gudoñetatik uŕun ikusten diran gastedijoik, baŕiz, gudoñetan aurkitu biaŕ litzakezanak ei-dira. Guda atzetijan geratu biaŕ daben bakaŕak, beste oneik: gudornijak-eta egiteko biaŕ diran langilak. Eta oneik be gudari arotik atazkuak ba-lira, oba baño ez.

Atxaki-matxakijakaz guda-atzetijan geratu guran dabiltzanen auzi au, beriala atondu biaŕ dana dala uste dau. Abeŕija aldeztu biaŕ danian; aŕiskuan aurkitzen dan eŕija aldeztu biaŕ danian, eŕi aldezle gustijak jagi biaŕ ei-dira, ta alko-maikuetan ibili barik bat batera jagi be.

“El Liberal”

Egazkiñen eta gudontzijen eŕkaltseña dan Prieto'renak dirala-ta, guda onetzazko atzalpen batzuk emoten dauz lenengo zeŕendan.

Eŕkal-Jaurlaritza Madrid'tik Valencia'ratuta lasteŕ egin ixan ebazan atzalpen batzuk gomutetan dauz. Aldi aretan, ba, argi bila juan ixan yakan Ipar-Amerika'ko izpaŕkingilari bati, olantxe esan ei-eutsan: epalan-nguruban asiko zala gudea.

Erantzun onek, izpaŕkingilari a, gelduta jaŕi ixan ei eban, zer erantzun ez ekijala. Asiŕa eguan gudearen aldirik gogoŕena epalan ixango zala esan eutsanian, baña, beriala uleŕtu ixan ei-eban.

Eta ain zuzen be, berak esan ixan eban lez gudea gogoŕtu ixan ei-da, ta epalan egin be.

Gogoŕaldi au ixango ei-da azkenengo gogo-aldija be, baña. Gudea azkeneruntz igituten asi ei da, ba, lasteŕ amaituko ei-da... Biaŕba, aste asko igazi baño len ikusiko ei-yako amayera-buztana...

“Euzkadi Roja”

Egidazu'taŕ Imanol buruzagijaren atzalpen batzuk argitaltzen dauz azkenengo ingoskijan.

Paxiotaŕen gudauŕka onetan ibilija dogu Egidazu. Eta onek esan dauanez, paxiotaŕen gudauŕka au, orain aŕteko gustijak baño gogoŕagua ixan da.

Asturias'kua gogoŕa ixan ei-zan. Emenguaz, baña, ezin bardindu ei-leke. Emengo gudau kan ikusi ixan dabenik gogoŕena, egazkiñen iñarkuna ixan ei-da. Egazkiñen iñarkuna gogoŕagua ba'litz be, baña, igesleku ta gordeleku onak dagozan tokijan, egazkiñen suagak ezertxu be ez ei dabe egiten. Eta bere eretxi ori sendotuteko, beste itzoik oguzten dauz: “beŕogei gazkin baño igesleku on bat nayago dot”.

Paxiotaŕen oñezko gudarijak baño, guriak, asko be obiak dirala esan dau. Gure oñezko gudarijak biaŕ leukena, baña, paxiotaŕen egazkiñei iges egiteko-ta, igesleku on batzuk ei-dira. Igesleku oreik ixanezkero, guda-era berezi au egingo ei-leukie gure gudarijak: paxiotaŕen egazkiñak oldaŕtuten dautsen aŕtian, igeslekubean estundu. Eta areik euren lana amaitzen dabenaz batera, igeslekubetatik urten eta auŕeratuten asten diran paxiotaŕ oñezkuai oldaŕtu. Paxiotaŕ koldaŕai gudea irabazteko guda-erarik onena orixe dala diño: igesleku edo “eŕepukijo” onak ixatia.

“Euzko-Langile”

“Ur txorija”ren idazlana da lenengo ingoskiko azkenengo zeŕenda bijetan argitaltzen dauana. Eta ixenpurutzat ezaŕi dau tsana, auxe da: “Atila eń Euzkadi”. Beraz, Atila bijozgia, Euzkadi'n dago.

Eta “Ur-txorijak” aiatuten dauan Atila, Mola dogu. Atila zanak baño be odol-egaŕi bixijaguaz Euzkadi'ri oldaŕtuten dautsan Mola ankeŕa baxen koldaŕa.

Paxiotaŕak Malaga'n egin ixan ebezan erailketa odoltsuak eta iguingaŕijak arimadun gixonak egiteko basatiegijak zirala ta, zinistu gura ez da lez ibili ixan gintzazala diño. Azkenengo gudauŕka au bide dala Durango'n egin ixan dabezan erailketa lotsagaŕijak ikusi ondoren, ba-ta, Malaga'n egin ixan ebena txiki be [illegible] geratu ixan ei-da.

Mola'ren aberekerija, antxe, Durango'n, ikusi ei-zan. Eta Durango'kua egin-ondoren, beste leku askotan: Bizkai'ko uri ta basuririk apalenetan.

Paxiotaŕen kenerala dan Mola oŕen ankeŕtasunak, ez ei dauka neuŕirik, ez da bardiñik be. Euzkadi'n dabilan Atila ei-da Mola. Atila ixan zan baño txarragua ankeŕagua ta koldaŕagua be bai.

“Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat” txil. du b[illegible] ixan ol-eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, gogoan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

Euzkeldun irakurle batza

(“EGUNA” IZPAŔINGIARI EUSTEKO)

Gran Via, 41'gko. 2'gn. bizitzan

ARPIDE-TXARTELA

... ... 'taŕ ... ...

... ... kaleko ... ... 'gko. ... ...

bizitzan bizi dena, EGUNA euzkel egunkari abertzalean arpidetzen da.

Eta borondaterik baldin ba-dezu, beste uŕengo au ere bete zazu

Bide batez, Batzaren asmoari laguntzeko ... ... laurleko ... ...

... ... ilean, iruilabetean, seiilabetean, urtean (1), ordainduko det.

Bizkai'ra eŕikatuta etoŕitakoa baldin ba-zera, esan emen zein eŕitakoa zeran ... ...

... ... 'n, 193 ...'gko ... ... 'ng.

Izenpetu:

OAŔAK

Arpidedunei egunkaria arpidetuta bereala bialduko zaio, baño, banakaritza bear dan bezela erabilteko arpidea joŕalaren lendabizikotik ordaindu bear dezu.

Beaz, arpidedunak joŕala (aprila), oŕila eta bagila, urteko bigaŕen ilabetekoa arpidetuaz batera ordaindu bear dute. Geroko iruilabetekoak bere garaian.

BESTE OAR BAT

Arpide txartela jasotzen duenak iru ilabeteko dirua (bederatzi laurleko) ekaŕi bearko du.

(1) Lau aldi oietako bat boŕatu utzi ta beste irurak boŕatu.

ATZERRIKO IZPARRAK

Paxisten ontziak edonungo ontziei erasoka jarraitzen dabe

Frantze'ren jokabide zintzo ta garbia.- Yugoeslabitarak eta frantzetarak.- Varsovia'n bonbak jaurtiten.- Frantze'ko salerosle asarea.- Von Zeeland'en asmuak, auteskunde ondorako.- Eden'en ibillerak.- Beste izparak.

PAXISTAK EDONUNGO ONTZIEI ERASOKA

Paris.—Noruegatar ontzia españar paxista gudontziak ipinten dautsezan eragozpenak dirala-ta, Oslo'ko Gobernuak guda -ontzi bat bialdu dau, españar uretan zainketan jardun dagian.

Palma Mallorca'ko paxista agindariakandik buru-garbitze itzak jaso ditu Gobernu ingelesak, "Galand" destroyer ingelesari egazkin suagaz eraso eutsela-ta. Paxistok agindu gogorak emon ei dautsez euren egazkinlariei, oldartu baño len, zeintzuk ontzi ta suaguak diran jakin dagien.

FRANTZE'REN JOKABIDE ZINTZO TA GARBIA

Paris. — Atzefiko izparingi askok eta pantzetar batzuk zabaldu dituen Frantze'ren kaltezko izparak guzur biribilak dirala adirazi dabe Gobernuaren landoletan.

Frantze'k España aldera, gudariak eta guda-gai ugari bialdu dituela zabaldu dabe, eta ez-sartze batzordearen erabakiai itza emon ondorean, itz ori jan egin daula pantzetar Gobernuak.

Ain zuzen be, España'ko auzian atzefitarak ez sartzeko asmua azaldu ebana lenengoz, Frantze izan da, eta ez ori bakarik, kontrol dalakoa lenbailen ezartea be, bere asmoa izan da, eta jokaera bi ofeitan Inglaterra izan dau laguntzale egoki.

Ez bateko ez besteko diranak, Frantze'ren jokabide zintzoa ba-dakie zelakoa izan dan; ofezkero, izpar eta naste ofek guzurez beteak eta estadu onentzat kaltegarriak dira, ta zitalkeriz izan be.

YUGOESLABITARAK ETA FRANTZETARAK

Paris. — Yugoeslabitaren Gobernuak Frantze'kuari eskatu dautso Montreaux'ko batzarean bere ordezko egin dagiala eta bere ardurak aldeztu dagiazala egiptoafen itunbenetan. Radio etxeak esan dabenetik Frantze'ko Gobernuak ontzat artu dau bere lagunaren eskabidea.

BONBAK JAURTITEN

Varsovia.—Gaizkin batzuk bonbak jaurti dabe bafiro Jakintza-Ikastetxe Nagusiko zuzendariaren ate auera. Kalte batzuk itu.

EROLAZ KOPLETAN ORAINDIK

Londres. — Itxasoz eta legofez egiteko dan kontrola eguazten edo eguenian asiko dala uste da. Egun ziurik ezin lei izentau, ordezkariak noiz elduko diran eztakielako euren lekuetara. España eta Portugal bitarteko mugak zainduko dituen eun eta ogetamar opizialez gafiera beste bosteun eta berogetamabost opizial ibiliko dira zeregin berbetan. Guztira seireun eta laro getabost izango dira.



Oyartzun efekea. Antxe atzian ikusten dan etxian jayo zan aita Astibia euzkeltzalia.

OSTIKOKETA JOKO BAT DALA-TA

Paris.—Italiafak ostikoketa jokua jokatzera ukatu egin dirala jakin Janean zer esan ugari egin dira urj onetan. Frantze'ko Gobernuak ez dabela erurik gai onetan agertu da. "L'Echo de Paris"ek diñonetik, italiafen idazkariak aspaldi baten agertu eban italiafen aurkako agerkuntza batzuk egingo ete ziran bilduta.

EMAKUME EGAZKINLARIAK

Sidney. — Bonney egazkinlari emakumia anteartean igo zan Brisbane'tik Australia-Aprika-be aldeko batzarako bidean. Egazkinlari au Pretoriakua da jayotzaz eta Nlemm'erako monoplano bat darabil bere ibileran. Ibilera onek amalau mila inguru ditu.

Egazkiñak ez dau radiorik, ezta jauskerako egorik (paracaidas).

SALEROSLIAK ASAFE

Paris. — Saleroslien batzak agiri bat agertu dautso Blum jaunari, berogei ordoko astea egiteak eragin dautsezan kalteak agertzen.

Erabagi ofek eta egun bi jafaikoetan dendak safatuta eukitaek galpide andiak eroan dautsez.

EDEN'EN IBILERAK

Londres. — Eden jauna Belgika'ra juan da belgikafen erregeak Londres'en asi ebazan jardunak jafaitzeko.

Jardunaldiak uste dan amairik eukitekotan, Belgika Lokarno'ko tratadiak emoten dautsazan lokafietatik azke geratuko litzake eta orixe izango litzake bakearen ildeko bide bat.

DELBOS ETA YUGOESLABITARAK

Paris.—Agintariak esan dabenetik Delbos jaunak eta Yugoeslabitafen ordezkariak jardunaldi batzuk izan ditue. Jardunaldiotan Benes'ek Belgrado'n erabilitako autuak agertzen ziran.

Jardunen gai zan baita Frantze'k gura daben alkafasun andia eta Europa'ren erdi-aldeko egoera.

BASTEFAK GARBITZEN

Paris.—"Le Petit Parisien"ek diñoanez G. P. U. ertzaiñetan garbiketa edefak egingo dira. Orafiarte irureun lagun atxilotu (detenidu) ditue.

BELGIKAREN ASMUAK

Paris.—"Le Matin"en Londres'tik artutako izpar baten diñonez belgikafen Gobernuko buruak Europa'ko egoereatzaz jarduten dan ingeles-frantzetar eta belgikafen artean egindako alkafzea agertzeko ustea eban, auteskundeak egin ondoren.

UDARA GARAIAN...

Eta zu,
eta, ni
baratzen geldi...
¡Orain,
zer esan zer?
Biotzean
itz bakar bat euki
ta, bera emon nai...
Oi, bai, bai
eskuak,
begiak zuzen onantz
maite ori!

Idigi begiak
eta ikusi!

Ludiak daukon biotz-miñe
Udara-garaian!:
Ortze ameskofa ostin,
lufa, eguzkifan gori..
Bai ederf,
atsegin!...
Lora-artean, egaka,
zeren bila?
zer ete nai?
zenbat mitxeleta zuri,
zenbat izaki, maite-min,
munka, eskuetatik
igeska yuaken izpiari.
Ludiak daukon biotz-miñe
Udara-garaian!:
Artotzak muskef-musker,
garitzak, ori;
solorik solo
pospoliñak kantari.
Bai ederf,
atsegin!...

Eta, zu
eta, ni
baraitzen geldi..
¡Orain,
zer esan zer?
Biotzean
itz bakaf bat euki
ta, bera emen nai..
Oi, bai, bai,
eskuak
begiak zuzen onantz
maite ori!

Muniategi'taf Sabin.

ESKEINTZA

Neskatil lirain bati.

Nai ba'dona,
tori ene ogei urteko biotza
eure amazoftzikuaren ordez!

Baña, argi-argi nai neuke, argi ..
Eure soin lirain ori ikusiz
ene soin argal au erakusteko
argi-argi nai neuke, oso argi.

Bien artean,
eme antzo:
ez bekoki ilun
ez eskutarik...
¡zcru garbia
izafez beterik!

Ez etofi itunez edenduta
malkoiakin! Etofi bai, lafosakin
biotz ori, pil-pil, mosu emotean
odol gastearen dardara bziakin!
Nai ba'dona,
tori ene ogei urteko biotza
eure amazoftzikuaren ordez!

Muniategi'taf Sabin.

Kulumiñoak ete?

Au barundadea! Au nastu beafa! An bean dana dago ondo; an guztiak gudari kementsu... ango jokabide zafa; ango eraikunde egokia, ango adorea..

Putza, aizea, burundadea; geure atakok zaintzen gogozanok adikatutzen yatorkuz. Era genduzanak, iduleztatu egin nai dauskuez. Agintaritza lafegi dogula diñoskue, ta bertokoaz gain, beste bateri men eragitea nai dabe.

Agintaritzarik egokiena, bertokoa izan daikena, edonork daki, baiña ofelk besterik uste dabe.

Au, ori ta bestea aldatu beafa...! Erlauntzean burundadaka asi yakuz, cusko-erle langile ta gudari zintzuon -artean.

Burundadeoi baiña, ez da egazkiñena ta guk egazkiñen ez dan burundadarik ez dogu nai gure erlauntzean.

Euskotaf tenteloi, egazkiñik gabe yatorkuzan egazkin lari trebeak, ez yakuz begiko.

Egazkiñan ordez, kulumiñoak saftu yakuz; egazkin-otsaren ordez, kulumiño zitalen burundabea somatzen dogu.

Euzko-erlauntzean, bakotxak berari yagokona, zintzo-zintzo egiten dau; eusko-erlauntzean buruzagi bakaf bat dogu. Buruzagi bakaf-ofen esanetara makurtu nai ez dabenak eta omen bertoko agintarijzarekin konporme ez diranak, eurei egoki deritxoen tokira buaz ta baketan itxi begiskue.

Emen egoki ez dogula jokatzen "a priori" dakionak, orain, be, emen, gure onik ezin ikusi dabe. Beste taju baten ikusi nai ginduke.

Gure eralkundea idulertatu beafa dala esateko, gure eralkundeofek nun egin dau "pofot" edo zein kalte ekafi dausku?

Eralkundeoi idulezteoi, euskotafok euskotafekin alkafzeko, euskotafok batzeko ta indartzeko naj ba-dabe, ondo deritxogu.

Euskotafok beste bide betez lotzeko ba-da, asmo biufok aizeak uxatu begiz.

Burundadea! Bere zeregiñetan diñarduena, ta berari yagokon tokjan dagoena, adikatu besterik egiten ez daben burundadeoi aspaldi dogu gaiñera.

Eusko-erletxoen eroapena! Erbeste -dunduridun burundadeok noz itzaliko ete dira?

Eurak ezer egin ez ta nastu egiten gaituen kulumiñuok, noz arte izango doguz aftean?

TXINGAR.

Euzkadi'ko guda-oiñetan

Bayona (Euzkadi).—Euzko-Jaurlaritza'ren izpaf-batzordeak, azken bi egunetan, euzko guda-oñetan bare-aldia izan dala adirazi dau. Etsayak artu daben astiñal diaz, geldi egoteko asmoa dau, nonbait.

Eguneton, kañoiez eta izkiluz izan ditue jardunaldi batzuk, geyagorik ezer ez. Orta gusti be, paxistak aurerakadea egiteko asmuz dabiltz. Makalunea non idoroko da bil joaldiren bat egiteko, ausaz.

Orañarte joaldia baño ondorentsuago izango dabela uf engoa uste ba'dabe paxistak, oker dagoz. Euzko-gudariak adorez eta kementsu jokatu dabe, eta gertu ta erne dagoz, ezetariko gorabera izan orduko gogof erantzuteko.

Joranez dagoz gudariok, eta gaitz be gaitz da eurok betutea.

TARTEKA-MARTEKA

Eden'ek Bruselas'en Belgika'ko efegea ikertuko dau.- Inglatefa'ko efege - jayak gertuten.- Poloniafak eta amerikafak.- Iru idazle efiaren arerio etsi ditue Rusia'n. Ostikoketako joko bat dala - ta.

MR. EDEN'EK BRUSELAS IKERTUKO DUALA-TA

Londres.—Mr. Eden'ek ila onen azken -aldera Bruselas'era egingo duan ikefa bide, sartaldeko batasuna lortzeko egin bear diran artu-emanak aurerakada egingo du-

lagun etofiko diranen itxaropena dago. Oietatik 100.000 europafak izango dita eta 22.000 Estados Unidos'etakoak inperioko basteretatik 100.000 inguru etofiko dirala diote.

POLAKAFAK ETA AMERIKAFAK

Varsovia. — Orain arte Noruega'ko ordezkari izan dan Biddle jauna Latefi Batuak bere ordezkari izentau dabe Polonia'ko Gobernuaren aufez aufe. Atzo izan zan Gobernu oneri agur egin eta aurkestuten.

ten uztea. Iker ori eskuarteko egokia izango da belgikaf zenbakariak ere Londres'era etortzeko eta gai garantzitsuak erabiliko dituzte ikefotan Van Zeeland eta Sppack jaunakin.

Mr. Eden'ek iker ori egin baiño len Belgika'ri bere betebefak erantziaz epailako azken batzafa bide, Frantze'k eta Inglatefa'k zerbait azalpen egingo dutenen itxaropena dago. Naiz eta Bruselas'eko jardunaldiak sartaldeko batasunari buruzkoak izango dirana jakin, auziari dagokion iritzi azalpenak baiño ez dutela egingo uzte da.

BURESKUNDE JAI AUREZ

Londres.—Bureskunde-jaietako Londres'ko batzafak, eleiza bete beterik ikustea nai luke. Ikusleak aste-bitartean izango dute safera, loreilako 15'gafenez, larunbatez, asi ta uztailako 15'gafeneraiño. Noiz-beinka, izango dituzte egunok euren aldakuntzatxoa.

Bureskunde-jaian zaintza-lanetan jardun bear duten 300 gudalburuak atzo goizean egin zuten eleizan bigafen saioa. Gudaburuok zaspiñako taldetan banatu dituzte eta uñezko makilajean bakoitza (buruzagia). Menpeko, kolonia ta erbestetatik Londres'ko bureskunde-jaietara gutxienez 227.000

EGAKADA OSPETSUA

Londres.—Tokio'tik onerakoa 94 ordu ta 18 miñutuan ain txalogafikiro egin ondoren, Croydon'en artu du luf "Vendediu" egazkiñak eta egitada onen amaia ikusi zuten guztiak egazkinlari goratzeari lotu ziran.

INGLATERA'KO EREGE JAIETARA

Varsovia.—Londres'en egingo diran efege jaietan izango diran itxas agerkuntzetan Polonia'ren ordez "Burzo" guda ontzia ibilliko da.

EFIAREN ARERIO

Mosku.—Iru elebefi-egile, Pickel, Makarow eta Paul Wasselav efiaren arerio etsi ditue eta atxilotuak izan dira. efusitaf idazlien batzafean agertu danez, Stalin'en aurka ebilala ta salatu dabe Wasselev.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ª

41'gn. Alameda de San Mamés txajdian

11447 Ufutizkiña

Efenderi ta Lezo

Efi abetako abefkide guztiori gaur afatsaldeko 4'tako Sabin-Etxe'ra dei dagiotegu, utsik egin gabe etofi ditezela batzaf ontara, gauza gafantziduna jakin arazi beaf zaizute ta. Ea ba, Efenderi ta Lez 'ko abefkide eta gure aldekoa guztiak ute egin gabe etofi batzafera.—Artezkariak.



GUDARI TALDE BAT.

Idaz-sariketa

Gudaz gero idazten asitako Idazle berrientzat.

Idazle bariok talde bitan bereziko dira. ERI IDAZLEAK GUDARI IDAZLEAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek ipinten ditugu:

Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigaren saria, 100.
Irugaren saria, 50.

Bigaren taldekoentzat sari onexek jarten doguz:

Lenengo saria, 250 laurleko.
Bigaren saria, 200.
Irugaren saria, 150.
Laugaren saria, 100.
Boskaren saria, 50.

Gudea baño lenago idazten izan dabenentzat. IDAZLE ZAARRENTZAT.

Idazle zaarrak talde bitan bereziko dira: ERI IDAZLE ZAARRAK GUDARI IDAZLE ZAARRAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek ipinten ditugu:

Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigaren saria, 100.
Irugaren saria, 50.

Bigaren taldekoentzat sari onexek jartzen doguz:

Lenengo saria, 250 laurleko.
Bigaren saria, 200.
Irugaren saria, 150.
Laugaren saria, 100.
Boskaren saria, 50.

BALDINTZAK

Jartzen dan Idaz Sariketa au gudea amaitu daitenean ebatziko da. Erabagia emoteko Euzkeldun Irakurle Batza'k Epaile Batzorde bat izentauko dau.

Idazleak edozein gai erabiliteko askatasuna izango dabe, naiz ezerti utsezkoak, naiz eri izpariak. Gudariak, baña, egokiago izango da gudeatzazko (guda oñetakoak eta abar) gayak erabiltea.

Erabagia emoteko, idazle bakotxaren lanari buruz, xeetasun onek gogoan eukiko dira:

Zenbat idatzi dauz: asko ala gitxi.

Bakotxak idatzi daun gustia gogoan eukiko da, osoan ikusteko zelakoa izan dan bere lana.

Sariketari buruz garantzirik geyen emongo yakona auxe da:

a) Laburki idaztea.

g) Yoskera garbia erabiltzea. Laburki idaztea izta esan nai, oso labur idatzi beaf izango danik, erabiliko dau gaya ondo borobilduta erabiltea baizik. Eztaitela izan, adibidez, amaf lerotan, ondo biribilduta, argi ta egoki esan leikena, ogetamaf lerotan erabiltea, esan nai dan berbera, puztuta batera ta bestera, idazkia luzetuaz esateko. Beraz, ba, laburtasunak eztau esan nai, nai ta nai-ez, idazkiak laburrak izan beaf dabela, gayak laburki erabiltea baño. Izan liteke gaya garrantzi undikoa eta luze azaldu beafa izatea. Ajan izan ezkero, luze izatea egoki izango da. baña al dala luzeegi ez egin, luzeegiak irakurlea bildurtu egiten du-ta.

Yoskera garbia erabiltzeaz, eztogu esan nai itzetan euzkera garbi-garbia, kutsu gabea, erabili izan bearko danik. Esan nai doguna da euzkera bere arauz idatzi beaf dala ez erderaren arauz.

Yoskeraz (itzak lotukeran eta esakunak lotukeran) garbitasuna zeatz erabili beaf da. Ondo yosi euzkerea naiz ta erderazo itzen batzuk erabili beaf. Ez uste izan erderazko itzik ez erabiltea garbitasunik asko dala. Ez baleiteke erderazko itzik ez erabiltea ta erderazko yoskeraz yosita egotea.

Idazleak, naiz bizkaieraz naiz gipuzkeraz gogozko idazkerea erabili al izango dabe, naiz izpiyakeraduna (fonética'duna) naiz izpiyakera bakoa.

Idazleak euren lanengo lana bidaldu dayenean (dezatenean) EGUNA'ren Artezkariari edo Euzkeldun Irakurle Batzari yakin ereziko dautse Sariketari buruz (con relación al concurso) zein taldetan sartzea yagoken.

BATZORDE EPAIKARIAK

Erabagia emoteko (gudea amaituta emongo da) talde bakotxerako Batzorde Epaikari bat izentauko da. Batzorde bakotxa euzkeltzale bikain bik osotuko dabe. Bata Bizkai'ko euzkererarentzat eta bestea Gipuzkoa'rentzat.

Talde bakotxean, Bizkai'ko Epaikari'ak Bizkayeraz argitaldutako idazlanaren arduraa izango dau ta Gipuzkoa'koak gipuzkeraz argitaldutakoena. Epaikari bakotxak berak aztertutako idazlanaren epaya beingoan emongo dau, azkenerako danak epaitzeko utzi barik. Astertutako idazlana 'dazkazal edo sobre baten (bafuan epaya dala) sartuko dau ta Euzkeldun Irakurle Batza'ri bidalduko dautso.

Epaya puntoz emango da, onetaraxe: Puntorik geyen ogei izango dira ta idazki bakotxari epaikariak deritxon beste punto edo ogairen emongo dautsoz. Sariketea amaitu daitenean idazkazabal edo sobriak idegiko dira ta ikusiko da bataz beste zenbat ogeiren edo punto izan dauzan bakotxak. Eta ogeirenez ogeiren edo puntoz punto (gogoan arturik bakotxak egin daun jana, ba puntuetan bardiñean egonafen ezin bardindu izango dira bost idazlan egin dituana ta berogetamaf egin dituana) goyen dagozanari emongo yakez sariak.

Sari banaketea egiteko Euzkeldun Irakurle Batza'k yai aundi ta edef bat antolatuko du.

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA.

Sendi-Alogera

(Sariketeari buruz egiña)

Doibazkidiak bakafik ez, ez dirjanik askok eta ixenjk ajntzatsubendunak atan-be, sendi-alogera aldeztu dabe.

M. Albert Thomas'ak 1926'garenian Lion'go ordainbide - kutxak ikeftzian auxe esan eban: "zuen gixafte-lanak afimintsu jafi nabe, eta beste efki batzuetakuak jabekeri - asmoz ba gota muz gonduten dabezan aftian, egi egiz dirautzubet ordainbide-kutxetako eralguntzan langilien atzipegafi ez dan naimen ona ganeratuten da, eta atsegiñen ixan yatana eskuzubal, matasun gixanayatasun, gixafte - bazkun au, zeuk gura dozuben ixendun au ulertu egin dozubela, eta gure gixafte-lagiko lanian laguntzafe be laguntzafe ixan-biaf yakun bat-aikaftzian eraldu ixan dana.

Bilbao'ko "Euzkadi Roja" 1937 epala 20'gn. iñuan: "Bakotxak bemo al dauana, eta bakotxari, (bemoskjo) biafixanez biaf dauana".

Besterik atatu-barik be, guk esan dogunerako naikuatzat etsita, orain-txubengo idazlanan, gurasuak ez danak baño geyago emoten daualako, aftu be geyago egin-biaf dauala-ta, sendi-alogera bidezkua zala esan geban lez, orainguan, biafixanak be, andijaguak, aztunaguak dauzala-ta, gixaftiak ainbakuari baño sendibururi geygo emon-biaf dautsala desakegu, beraz, sendi-alogera berenezkua ta bidezkua dala be baj.

Gixaftiak gurasuak, sendidunak ixata berenezkua dau, sendi-barik gixaftak irauteko biafez biafa dauan lako bixitza bafirik softu ez eraldu ezin dagik lako.

Au, lenguan be, zerbait azaldu geban, asko geyago be azaldu dagikegu, baña bape genik -ta bururik daben edonok Rusia'ko gixaftekerizale, baña baltsakerizaliak be, ezautiz baño espa-dabe, argi ikusi daben ezkero, ez guaz, oraingoz beintzat, geyago luzetzen, eta geure arira joko dogu.

Urenguan geyago.

MONTXOR.

Idazko a-uafa.—Barikuban, ila onen 9'n. "Itaundija,,'ren ordez "Itxundija" ixenpurubaz argitallu zan idazlana, sariketeari buruz idatzija ez zala ixan esan biafian gagoz. Beraz, baftatz aftian agertu zan "Sariketari buruz egiña", okef jafija ixan zan.

AÑOTZ BAT TXAÑA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAÑAGO DA BERA EZAGUTURIK ABEÑTZALIA EZTAN EUZKOTAÑA.

Cabanellas Gazteiz'en

Gazteiz.—Atzokoan, Cabanellas jeneral paxistea uri onetan izan zan, eta Bizkai'ko guda-oñak ikusten jardun eban.

Guda-oñetan, soldauak eta gogozko gudari paxistak txalo-txaloka arera egin ei-eutsen.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

abestu bafiei laguntzea. - Janarien saneufiak adiraziaz. belgofiak zainduteko erabakiak. - Esne batua noiz eta nortzuri banatu. - Etxejaube ta arduradunei agindua etxietako argiak dirala - ta.

Lendakaritza

IZPAÑIK EZ

Egunero oi bezela, atzo ere Basaldua'taf Kepa jaunarengana jo genduan. Zaingoko befi jakitzera.

Izpafingian aitatzeko befirik ez zuala esan zigun Lendakaritzako idazkari bereziak.

REZOLA JAUNAREKIN

Guda-Zaingoko idazkari nagusi Rezola jaunari guda-oiñetako befi eskatu genion eta gure gudariak erasoari ekin ziotela erantzun zigun, eta. Erasoa asi-erazotako asmoak egoki egiztatu ondoren, gure gudariok kemenez jokatu ta ainbat kalte egin zizkiola arerioari gaiñeratu zigun Rezola jaunak.

Saleroseta ta Orniketa

EROSKETETAKO ZUZENDARI NAGUSIAREKIN

Edari ta Eroskete'tako zuzendari nagusiak aurxe esan zigun atzoko jardunaldian:

—Otxandiano, Afatia-inguru ta beste guda-lekuetatik Bilbo'ratu diranai Bilbo'ko Udaletxean efaziotarako liburutxua lortzeko, baimen-agiri ematen diardugu Zaingo ontan. Guda-zertzeladok bide, etxeko beroa utsi ta onera etofi beafa izan duten efukafiontzat ardura bereziie degula jakin erazo nai nuke.

Euron efia utsi beafa izan ondoren, Bizkai'ko beste urietan bizi diranak, eskatu bezate Zuzenda'itza on'ara bakoitzak bere Udaletxeen efaziotarako liburutxua lortzeko baimen-agiria.

Guda-garaiotan—jafaitu zuan Lasa jaunak—beaf-izan guztiok beaf bezela ornituta daudela adierazi nai nuke ta laguntza ori amaituko dan beldufik ez dezala iñork izan, eta Zaingo ontan erantzupen-lanetan jardun oi degunok pozafen betetzen ditugula geure eginkizunak.

ORNIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIAREKIN

Orniketako Zuzendari Nagusi Beltran jaunarekin izan gendun gero jardunaldi.

—Ez dizutet gauzak befirik, mutila. Jakin-erazo beaf dezute ofatio gauza bat. Azken-ordran konturatu gera asa-ekantzeak leporatu dizkigun eralguntzak len esandakoak baiño ugariagoak dirala-ta, asa-buruko 0,70 laufleko saneufia ezartzen degu, naiz eta Zaingo'arentzat batere irabazirik izan.

Saneufia jaso degun afen, danak dakite tasan izentatzen deguna bestekoa ez dana, tasak 0'80 izentatzen du-ta.

Beste argibide bat orain. Zuzendaritza Nagusi ontan jasotzen ditugun ainbat muetako sopa-gaien izugafizko saneufia bide, kiloari bi laufleko saneufia ezartzera beartuak gaude.

Jakiña, jendeak igafiko dio saneufi-jasotze oni baiña mueta batzuk 3'10 laufleko kiloa ere badirala jakin-erazten det.

Mariano Lucio uriko salerosleak 250 laufleko bialdu zizkiola esan digun azkenez Beltran jaunak, berari deritzaion beaf-izanak ornitzeko.

Osasun Zaingoa

GORDELEKUETAN ZELAN SARTU TA NOLA EGON

Gordelekuetan pilaka barik, urengorik urengo saftu beaf da. Estutasun barik eta bakoitzaren txandaz guztiak eldu daitekez bafura, itsumustuan saftutzeke.

Gizonezkoak, ordea, gizabidez eta begiramenez, ume, emakume, zaf eta gexoia lenengo saftzen utzi begioa.

Bultzakadaka baño erezago eta obeto saftuko dira guztiak esandako eraz.

Gordelekuetara sartutean, ate ondoetan eta safera inguruetan barik, aiik bafuren joan, bafiketan eta begiraka jardun bage.

Beste asko dira saftu nai dabenak eta saftu beaf dabenak, eta arei bidea eragoztea ez da bidezko.

Bafuan, bare eta nasai egon, alperreko zirkin eta ibilerak egin bage.

Izketan ixilik jardun, ez zarataka, norbera estutu eta albokoak kezkatu baño besterik ezpajta lortuten orela. Eta ofez ganera, oxigeno geyago igatu oi da, ta ori gordelekuko aizea kutsututeko bide baño ez izan.

Ez efe gordelekuetan, aizea ez loituteko.

Jatof egon eta jardun, eta beste enparauak bardin egin dagien ere alegindu.

ISUNAK

Zaingo onek multa batzuk ezafi beafa izan dau bafiren bafi. Esne batua beaf bezela barik artzen izan dabe norbaitzuk, oretarako euren semeak diran baño gasteagoak dirala adirazi az,

Geyago onelako zigofik ezafi beafik izan ez daigun, eta azpikeriak alde batera laga dagiezan, ots egiten dartsegu, gure ikuskariak aurkitu ba' dagiez zigof gero ta andiagoak ezari beafik izan ez daigun.

ESNE BATUA

Gexoai, urengo astelenetik, biartik, bananduko dautsegu, eta botiketan egin ere.

Esne batu ori artzeko, lenengo ortarako agiria jaso beaf da Gota de Leche dalako tokian.

LANGILEAI LAN-EMON BIDEAK

Langilei lana emoteko antolatu diran Landola onek, bakoitzari ezafitako lana egin beafa izango dau, efeskadetan urengoz urengo izendatuak izan daitezanak, nai norbere efian iza ala erbestean, eta ezafitako epean, gañera.

Guztien onerako dana alde batera utziaz, norbere aukera eta gurariak bete asmoz agindutako lekua bertan bera utzi dagiaua zigortua izango da, guda arloaz be, kaltegarria bai-da orlako jokaera.

Nekazaritza

ABELGOFIAK

Uribe-Etxebafia jarmarekin izketan lotu giñanean guda-leku diran efietatik ekaritako abelgofiarekikoa aitatu zigun. Ondo zainduta daudela ta beaf bezela azteko aufez pentsua esketuta dagola gaiñeratu zigun.

PATATA-AZIA

Mila ta bosteun toneladaka ereintzeko patata-azia banatu beaf zirala-ta atzoko oafaz gaiñera, azi ori ereintzeko bakaf-bakafik banatuko degula ta ori egitez ez duanak—azterketa-lanik ez da paltako—zigof gogofa izango duala jakin-erazotzen degu.

Langintza

LAN-EPAIKARITZAK

Erasketxeetako lan - epaikaritzak sortu eta eralduteko agindуak emon eban arañegun zaingo onetan, ufengo agindu-atalen arabera.

Bizkai erkian izango dan ardura-bafutia Erasketxeetako Jurado Mixto dalakoak, eta sei burukide ta sei ordezko izango ditu.

Ordezkari-gizonok izendatzeko ugazaba-batzak eta langile-batzak izango dabe eskubide, gizarte - ereskadaetan craintxe dagozanak. Bizkai onetan dagozanak, eta 20 egun bafu sartu daitezanak, Euzkadi'ko Agindaritza egunerokoan agindu au agertuz geroz.

Esandako epea bete ezkeroz, Bizkai'ko Langintza ordezkariak, batza ta alkargoen ereskadak Zaingo ontara biali bitza, auteskundetarako eskubidedunak izentauteko.

ZAURITUAK IKUSTEN

Osasun zuzendari nagusian, Cordero jauna, Matiko'ko ezbiafean zaurituak izan ziranak ikustera izan zan, Gexotegian.

Gizarte-Laguntza

EMOKUNAK

Atzo artu ziranen ereskadea ona emen.

Martin Soto'taf iBtoren, 25 laufleko; Gorostitza'taf Bingen, 25; Esteberanz etxea'k, 100; Loscos'taf Koldobika, 67,50; Gomez'taf Emili, 25; Torrijos guda-saildia, U. G. T., 14'gna. 1.775,40; Abasolo'taf Imanol, 25.

Guztiz, 2.042,90 laufleko.

Efi-zaintza

ETXE-JAUBEAI

Ogetalau ordu bafu, etxejaube ta arduradunak bete beaf dituen agindu zertzeladak.

Atadi eta maladietan dituen argiai, pantala diralakoak ezafi beaf dautsez, lengo eta telatu-begiak argi-izpirik artu ez dagien.

Atalietan, zabalik dagozalarik, kalea motelkiro argitzen daben argia egon bearko da. Gordelekuetarako sarerak beti-betira idikiak begoz.

Euzkotaf Umien Aldez

Bekaitzkeria

"Naigabe eskutu bat susmatzen dizut."—Charles Guerin.

(F'eeris; entre mon reve et toi..)

Gezufa dirudian afen umien biotz samurean softu oi da gaitz bat, guztiz kaltegafia, eta eurentzat ekafi le zakezana. Bekaitzkeria.

Gaitz au (gaitza deitzen diot ume gogoaren gaitz bat dalako) ez dute ume danak izan oi, baña batzuetan guztiz gogor agertzen daki.

Geyenean (neuk ikusi detanez beintzat) ume argal, kiritsu, gaxoti edo osasun beraadunak izan oi dira bekaitztiak. Ume lodi, sendo, osasuntsu ta ore onekoak ez.

Txiki-txikitatik izan oi dute umeak lera txaf au, eta eurentzat guztiz kaltekofa izan oi da. Emendik noski eurkerazko esaena zaaf au: "Ume ori inbiriak urtutzen du".

Tai onetan gauza aundiak ezagutu ditut, gezufa diruditenak. Ara bat,

Ogei ilabetedun umetxo bat bere etxetik ajtaitu eta amamaren etxera eraman beaf izan zuten gaxoari ama li zitzayolako.

Etxe onetan zazpi urtedun neskatxoa zuten azkenengo umea eta pozik aftu zuten danak umezurtz gaxoa, bai aita jaunak, bai amaandreak eta bai iseko-osabak ere.

Berarizko eskubidea bai zuan majtetasunera ain txikitatik amagabe gelditutako umetxoak!

Auxegaitik eta guztiz argia ta gauza danak ulertzen zituana zalako etxeko guztiak begietako niniak ere baño maiteago zuten.

Ume oni (zegaitirik ez eukala dakigun afen) gezufa dirudi baña izugafizko bekaitzkeria sortu zitzayon bere biotzean. Bekaitz ain aundi au bere zazpi urtedun izekotxoari aftu zion eta egunetik egunera argaltzen asi zan, lorik ezin egin zualarik, ezer ezin jan eta batez ere amamak izekotxoari yaramonik egitea ezin eraman zezakelarik.

Baldin erortzen ba'zan izekok bultza ta bota zuala esaten zuan, iñon miñik baldin ba'zuan izekok egin ziola. Iñork erakutzi gabe (etxekoak oso onak ziran) onelakotxe gezuf borobilak esaten berez ikasi zuan.

Azkenez, beste gaitz gabe umea ilko ez baldin ba'zan bere izekotxoa aizpa eskonduaren etxera eraman beaf izan zuten. Ogei ilabetedun umetxoari edin kendu zeikion ba beste eretara bere gaitza!

Neure adizkide batek ume bi zeuzkan amajau ilabete ta bi ilabetedunak. Egun batean txikien negaf estuetara seaskaratuaz zaafena aulki baten gañera igo bai? ta txikiari estafitik elduta afapatu zuan. Baldin arin ibili ez ba'litz itoko zuan noski. Egun artaraño ez zioten iñoiz umeari bekaitzik zeukanik igeri; eta ja umearj min zergaitik egin zion galdetu afen ezin erantzun zezakean. Ez bai zekian izketan oraindik!

Neuk ezagutzen detan jau urtedun mutiltxo batek, urte bidun bere anaitxo bateri sukaldeko kakoa sutan berotu eta zankoa efe zion. Bere amak kirtenkeri bat zala uste zuan afen bekaitzkerjen egitada argia zan, egun aretan txikiari bere aitapontekoak jostala bat ekafi zion da.

Ama batj entzun diot bere semetxo bat, txikiena lo zegoan seaskara ixil-ixilik juan eta arpegitik txitximurka egiten afapatu zuala bein.

Onelako gauzak afigafiak diran afen ez dira bakanak, une bekaitzkeriak indaf aundiak ditu ta

ARITOKIETA.

IZTEGI TXIKIA

Euzkeraz irakurtean oituta eztagozan euzkeldunak itz asko ez ezaunak aurkituko ditue, noski. Eta orain iztegirik zuzentzea gaitza dan ezkero, irakurleok IZTEGI TXIKI au bitafte dala beaf bango dabezan azalpenak izango ditue.

Azalpenok astean bein, ofetarako izentauriko egun baten, egingo doguz.

Beraz, ba, itzen baten ikurpenik edo esangurarik yakin nai ba-dozu, izpafingi txataj auxe bete, ebagi ta itxi bako idazkazaj edo sobre baten, zentimo biko ikufatz edo sello bategaz zuzenbide aonetara bidaldu egizu:

EGUNA
Correo, 17, 2.°
BILBAO

Itz ez ezauna	AGERTU DAN			
	Zenbakia	Ingoskia	Zentendea	Lefoa

Bidaltzalien izena .....

Erija .....

IZPAR MARDULAK

JAPONDAÑ EGAZKINLARIAK

Roma.—Littorio'ko egazkin lekura eldu da Vendediu japondaf egazkiña. Tokio'tik urten ebela oraindik irurogeta-amabi ordun ez daroen egazkiñeri bik barkurako Londres'era eltzeko ustetan diardue, Paris geldialdi labuf bat egin ondoren.

INGELESAK ESPAÑA'REN ALDE

Londres.—Londres'ko sindikatuen batzordeak erabagi dau bere langilei dei bat egitea españafen alde lan dagien. Paxisten aurkako gudea ingeles langilien aldeko gudea dala erakutsi dabe. Origaitik langile guztiak biziro lan egingo dafe gobernuaren ondoan españaf langilien alde agertu daiten.

NORUEGAÑAK ITXASONTZIAK BIALTZERA?

Oslo.—Lege etxean eskari bat agertu da España'ko uretara guda-ontzi bat bialtzeko eskatzen itxasontziak zaindu dagiazan. Uste danetik bialduko dan gudaontzia "Olyn Tryggvason" izango da.

Maite ditut...

Maite ditut. itxas, zelai, mendiak bereziki euzkoak.
Maite ditut zeru-urdin ta izafak luf argi zaleak.
Maite ditut, zugasti, lore, txoriak biotz xamurleak.
Maite ditut, euzko-dantza, abestiak gazte jolasleak.
Maite ditut, sagar, maats, mafubiak soin bizigafiak...
Maite ditut, itxasgizon, afantzaleak abenda ezaugafiak.
Maite ditut, euzko-nekazari apalak euzkera eusleak.
Maite ditut, euzkotaf abeftzaleak Jel aldezleak.
Maite ditut, euzkel-idazti egunkariak euzko jenariak
Maite ditut, gazte, zintzo, garbiak abefi loreak.
Maite ditut, euzko olerkari amesleak ele edefleak.
Maite ditut, euzko-gudari kementsuak abefi gaizkaleak.
Maite ditut, emazte, seme-alabatxoak biotz barnekoak.

MENDI LAUTA

AU, ORI TA BESTE

Rusia eta Japon'en arteko artu-emonak geroago ta gaŕatzago

Italia'k ez dau nai bere etxean naste girorik.-Paxistak Bilbao aldean eukezan uste asmuak.-Burni ta galtzairuarekiko batzaŕa.-Italia'k eŕi-arteko legedia apurtu dau Abisinia'n.-Izpar geyago.

"NEW YORK HERALD"EN IZPAŃAK ETA ERITXIA

Valencia.—Bilbao eurentzeko asmoz edo, paxistok joaldi bizi-bizia asi dabe tu bederatzi egunean jo ta jo jardun ostean eta lenegotan ustekabez zerbait lortu-ebenaŕen, joaldioŕek "motz" egin dabela uste dabe. Egazkiñen - egazkiñez eraso zakaŕa egin dabe.

Guda oin oŕeitara gitxienez 40.000 gudari eruan dabez: oŕeiz gaiñera guda-burdi berezi ta kañoiak ugari ta 78 egazkin.

Espe artu eben lau alemandaŕ gudari agintarietako batek, bosgaŕen egunean Durango artu ta ufengoan Bilbao'runiz asteko asmoa ebela esan eban. Usteok ustel biurtu dira baiña. Erasuoi baiña luŕez bakaŕik egiteko ustea ez eben; luŕez joten ekin ostean itxasoz gudariak eruan eta itxaeriz baten legoŕeratu ta ekiteko asmoa eben. Orixegaitik dabiltz ta ibili dira paxiston gudontzirik geienak kantauri itxasoan. Azkenengo asmuoi beŕetan, be, ez dira asi.

Itxaropen aundia agertzen izan dabe paxistok eta eraso ori, Malaga'n egin ebenaren antzera, auron indaŕen agerpena egiteko zan.

Erbestean ustea galdu egin dabe paxistogan Jarama, Guadalajara ta Cordoba'ko ostikadak artu dabezan ezkero. Ostikadeokaŕen adoreketuta egozan euron artekuok, adoretzekotan asi dabe jo aldioi. Erbestean paxistok asko galdu dabe.

Franco'k erbesteta'ak guda-alderdi eurok estea nai dau; oraiñarte ezer ez dau lortu. Guda-alderdi etsiko ba' lebez prankotaŕok, Lateŕi-arteko Legediaken indaŕez ta eskubidez, itxasoan edozein itxasontzi geratu ta erkaldaŕen portuetan juatea eragotzi egin daikioe.

Itxasertzean ez bakaŕik, edozein ailetan, be, guda-alderdi etsiko ba' lebez itxasontziak beti geratzeko eskubidea izango leukee ta kontrabandorik daben ikusi. Asaldariok baiña ofetarako eskubidea nork emon da izan daike? Kontrabando zer dan erabagiteko eskubiderik ez dabe.

España'ko itxasertzetan itxasontziak erakatzeko eskubidea emon egin dautse ofaitiño ofetarako, be, eskubiderik ez dabenaŕen.

Bilbao meatz-toki ta Burdin-laba kaŕen eurendu nai dabe paxistok.

BURNI TA GALTZAIRUAREKIKO BATZAŃA

Venecia. — Burnia ta galtzairua ezartzeko arduŕa duten ordezkariak batzar egin dute, burni-gintzarako burnia ta galtzairua erosteko, igazitako ilez Paris'en asitako eztabaidak aztertzeko-asmoz Batzaŕean lagungiro izan zuten Italia, Inglateŕa, Austria, Alemania, Polonia, Suecia, Checoeslovaquia, Yugoeslavia ta Rumania'ko ordezkariak euren artean.

ITALIA'K EZ DU NAI BERE ETXEA NASTE-GIRORIK

Roma.—"New Chronicle" izpaŕingiak sortutako naste-giroari buruz jardun du "Giornale d'Italia" egunerokoak.

Bartllet jakintsua, ingalandaŕ uzkurtzale-baitzetako lendakaria ta beste zaspi anglikaŕ belgundari salatu ta bialdu egin bait'dituzte Etiopia'tik. Eta italiaŕak lateŕi arteko lagid.aren aurka jokatu dutela - ta, ofen aurka oar egin zion "Foreign Office"ri.

Baietz, bialdu egin dituztela belgundariok eta ori ontzat ematen duala dio "Giornale d'Italia"k, belgundariok azpi-lanetan jardun zutela ta uzkurtzalekeri-zaleak baiño ez zirala -ta. Italia'k Etiopia menderatu ondoren, bere luŕalde guztietakoai pakea agindu zien eta luŕaldeotako baretasun-alde alegiñak-alegin egingo ditu; ortarako, nastea edalzen duten erbestetar guztiak bialtzeko ez da kikilduta egongo. Lekemle oraintsu, protestanteen ikastoletan bazkidetutako abisiniaŕ gudari-ikasleak erail zuten.

Protestanteak 1934'gn. urtez Etiopia'ra bialdu zuten zabalkundelari artean, baziran iru neskatila ere, Sandford ingalandaŕ koronelaren artu-eman aundikoak. Sandford ori Addis Abeba'n zegon ingalandaŕ ordezkaritzako lendakari ta Degrae Abisinio Dimaje'ren aolkularia zan.

Onek ere ekiñalean jardun zuan azpi-lanetan, eta buru jokatu ere.

JAPON ETA RUSIA, ASAŃE BIDEAN

Londres.—Tokio'tik artu dan izpaŕetatik, Guda-zaingoko arduradunak esan dauanez, Rusia ta Japon'en arteko artuemonak gero ta gaŕatzago dagoz.

Egoera laŕitua bai-dago, japondaŕak jakin begie egoera oŕen baŕi. Rusia'ren politika jokaerak armak ugaritutera beartu dau Japon.

KOMUNISMOAREN KALTEZKO ENZIKLIKAZ

Roma.—Paxisten iŕatiak diñoenez, Rabino andiak azalpen batzuk egin ditu sinagogan, komunismoaren kaltezko Aita Santua'ren idazkia aipatuaz.

Italiaŕ izpaŕingiak jaso ditue azalpen oŕeik.

"Aita Santua'ren dei ori gerrendu egin dogu—iñoan Rabinoa'k—eta asmo zindo oŕen aldez jokatu dagiela eskatuko dautsegu geure siñestekoei."



Abando-Batzoki'ko neskato-mutikuak dantzari trebiak doguz.

ANDIK ETA EMENDIK

Madrid'en eŕi-zaleak egin dituen auŕerakadak.-Egazkin saioak Rusia'n.-Lusbury ta Hitler alkaŕekin egongo dira.-Frantzia'n erbestetar asko Paris'eratu nai dabe.-Alemania bere burua ondatzen dabil.

ALEMANIA'REN JOKALEGEA: BERE BURUA ONDATZEN DAU

Moscu.—Schacht iaunak Brusela's'era egingo daben ostereak, Alemania'k diru-arazoetan daukazan laŕiekin zerikusia badau "Izvestia" izpaŕkari entzuletsuak diñonez.

Zufumuru ofeitan esaten danez, Belgika, Holanda ta Suiza, Alemania'k bere esanetara makuŕtu nai dauz ta lateŕi ofeitako lenen-gai ta diruakin bere baŕizanak ornidu. Schacht'ek Europa Ego-Sorkaldeko lateŕiekin egin ebana, beste lateŕiokin, be, egingo dabela uste dau.

Balkan-laterietan salerosketa-autuetan Alemania'ri jotsa aundia dautse. Lateŕi ofeitan baiña, salerosketa arazuetan, Alemania'k eragozpen aundiak idoro dauz, itxura dagonez ta Danubio ertzetako ta Balkanetako Laterietan, alemandaŕok oraiñaŕtekin sanean ezin jaŕaitu al izango dabe ta atzerazka astea badaike.

Lateŕi ofeitako len-gai ta janariaen saleroskeian buru izaten jaŕaitu nai leuke Alemania ofek baiña. Schacht'ek Bruselas'era osterea Alemania'ren aginpidea ta saleroskeia-zuzendaritza indaŕtu ta zabaltzeko asmoz egingo dau.

Alemania'k baiña bere burua ondatzen dau izkilu-gitxiterik ez dau nai ta bake-zale, be, ez da agertzen eta. Salerosketa sailetan eta diru-autuetan bere burua ondatzen dau ta len-gai gabe geratzen da.

MUGAETAKO ZAINTZALEAK

Perpignan. — Dinamarkaŕ kapitana, Jensen Helgi eldu du uri onetara. España ta Frantze Estaduen mugaetako ikuslaŕi da, eta Sorkaldeko Pirineoak departamentuko ez-sartze batzordearen ordezkaria.

MADRID'EN ERIZALIEN GARAITZAK

Madrid—Pozuelo baŕukian eta Euzkadi'ko guda ofetan, bare aldia izan zan atzo. Madrid'en sartaldean, ostera, eŕizaleak bultzada gogoŕean asi ziran. Guda tresna bikañak erabili zituen, eta suagen-putsa ta keia Madrid'tik ikusten zan, eta tiroketa ixildu bakoa.

Goizean goizik buŕukaldi gogoŕa izan zan. Eŕizaleak Carabanchel'eko Guda-Gexotegia aŕtu eben. Eta Casa de Campo'n auŕeraka dojaz. Almudevar muñoa ere, aŕtu dabe erkaloaŕak.

KIROLAK ETA POLITIKEA NASTUTA

Paris.—Prantzia'ren eta Italia'ren aŕteko ostiko-pelota jokoa igandez, Prantzia'ko Erbeste-arazo Arduradun'ak italiaŕ paxista ereserkia joterakoan gora-goraken batzuk sortu eikezala aitzen emon dabelako ez da'a ospatuiñoen zufumuŕuak bul-bul ebiltzan eta pantzetaŕ agintariak oso-osorik guzurpetu dabez zufumuŕuok.

Italiako ostiko-pelotari Batza'ren atzerapenaŕen, minduta dakuskuz araŕegun gabeko pantzetaŕ izpaŕingiek. Batza oŕen burubideoi, politika autuakaŕen daka diñoe ta auŕerakoan kirolen gain politikea izango ete dan bilduña agertzen dabe.

Kiro-laizak Italiaŕ joka'arien ordezkoak idoro nai dabez ta Belgika'ko, Holanda'ko Inglateŕa'ko ta Alemania'ko jokalari-taldeekin artuemonetan dabiltz igandez ostikoketeoi ospatu daiten.

LANSBURY TA HITLER ALKAŔEKIN EGONGO DIRA

Londres.—Laborista-Aldardia'nen buru izandako Lansbury'ek ilaŕaren 1'gn. egingo dau Hitler'ekin baŕiketaldia arek aitzen emon dabenez. Lansbury Inglateŕa'tik il onen 16'gn. aterako da ta ufengo eguaztenez biuŕtuko da atzera.

PRANTZIA'N ERBESTETAR ASKO PARIS'ERATU NAI DABE

Paris.—Erbestelaŕok alik geien erakaŕteko Erakuskeia Nagusia zabaldu daiteneaan, Ogasun-Zaingoa'ren aginduz, Prantzia'n bost egun daruezan erbestetaŕ belbil edo auto-zaleei, Mayatzaren lenengoan asita ufilaren azkeneraŕte, gasolinea asko, be, merkeago emongo yakoe.

Erbestelaŕok litro gasolinea prankoaren 60 zentimo ordainduko dabe; salneuŕi ofetan, oraitiño, 600 litro baiño geiago ezin erosi daikez.

EGAZKIŃEN EGAZTADAK RUSIA'N

Moscu.— Eŕi-egazkinlariak 1937'gn. Rusia'n 55.000 kilometroko ibiliak edo egaztadea egingo dabe guztira. 2.000 kilometro bide luze diran beste egazkin-bide batzuk asiko dabez lastef.

Ufezko aŕautzadun oloa


Batek, ufezko aŕautzak egiten zituan oloa zeukan; eta ufezko pila aundienbat bere baŕenean bai-ote zeukan ustez, il-egin zuen: baña beste edozein olo bezelakoa arkitu zuen. Oŕ ba, nola izugaŕizko aberastasuna batean bilduta zuela uste zuanak, baita lengo txiki ura ere galdu egin zuan.

Ipuintxo onek azaltzen digu, ase-eziñik ibili gabe, daukagunakin naikoturik, artara jaŕi beaŕ gerala.

Erakuspena

Aberastasuna ta ondasunak geiegiko gogoz ez dira nai izan beaŕ, neuŕiz baizik. Gure aita Iñaki Deunen oaŕa gogoan euki: Ludi ontako gauzak gu zeruratzeko aiñan besterik ez dirugula artu beaŕ.

Gaiñera gure Esaera-zaŕaŕ digu: "Guzia nai duenak, guzia galtzen du". Ta beŕiz: "Geiegi batzaz, sakela leŕtu egiten da".



Bizkai'ko landegijak edozetarako gai diraia ba genkijan. Ointxe be, belbil ikusgaŕijetaikuak urten dira bere landegijetatik. Ikusi bestela, onako au.

EUZKERA

Aman altzoan ikasitako
Izkuntza eder, gozua,
Bijotza pozez betetan dauan
Itz pozgaŕi, eztitsua.

Euzkal-Eŕi'ko lorategian
Sortu zan lora onena,
Euzko guztiak maite biar dau
Gauzarik kutuk lenena.

Gure asabak itxi euskuen
Pitxirik maite, onena,
Ludi guztiko mintzoetatik
Eder eta garbiena.

Egizko ama, ama laztana
Kutun, gozo ta eztija,
Euzko-bijotzen poz-itufija...
Eta maŕasun-kabija.

Mendi-ostetik geldiro-samur
Agertzen dan eguzkija,
Euzko txokoak biziro poztu
Oi ditun egun-sentija.

Udabeŕiko atson gozodun
Klabelin zuri-goŕija,
Gure bijotzak argitzen ditun
Argi eder ta bizija.

Etsai-sumindik gaizkatuteko
Iskilu bikain, sendoa...
Orixe da ba... ta askoz geyago
Euzkera gure mintzoa.

Esnatu, jagi, euzko anaja,
Eta negartu euzkera,
Bera bagarik ilak dira-ta
Gure izen on ta izakera.

GOIRIA'TAŃ ANDONI
(Aba karmeldaŕak)
Colombia-Bogota, 1936.

EGUNA JEL

Euzkadi'ren seme ona ixateko, beraren aldez bixitza emoteko gerturik egon biaŕ da.
(ARANA-GOIRI)

Lgo. urtia | 86'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. jorrallа 11'gna. igandea | 15 eunen

AZKENENGO IZPARRAK

España'ko alde guztietan eŕepublikaŕak auŕera, paxistak menperatu eta atzeratuaz

Madrid ingurutan joaldi biziak egin ziran, esku bonbekaz gudatu arteraño. Egazkiñak zindo lagundu eutsen arerioa atzeratzen.-Huesca aldean katalu-niaŕak leku baŕi batzuetan sartu ziran, paxistak atzeraka jaurti ondoren.

Guda oñetako agiriak

GABEKO IZPARRAK

EUZKADI

Guda-Zaingo'ko arduradunak gabeko amaŕetan emandako agiria:

Gipuzkoa'ko guda-oiñean

Eibar'ko guda-oiñean, gaurko egunа ere morterozko etengabeko ekiña izan dute gure gudariak. Soraluze'ko g[illegible]-gintzak zuŕatu zituzten.

Lekeitio, Elgeta ta Elorio'ko guda-oiñetan

Artileri-jotea.

Bizkaia-Araba'ko guda-oiñean

Gu[illegible]-oin ontako inguruetangaŕantzi aundiko guda-esietaruntz erasoka asi dira g[illegible]aŕak eta eraso-asmoak egin[illegible]ami biurtu dira arerioari izugaŕizko zuŕa[illegible]anaz.

Burgos'ko guda-oiñean

Ezer ez.

CATALUNYA

Barcelona.—Generalitat'eko Guda Zaingo'ko arduradunak gabeko bederatziretan ifatizkiñez emandako agiria:

"Huesca'ko guda-oiñean diarduten guduketan, guretaŕak ain egoki egindako zearkada bide, paxistaŕak euren burua gordeta ta sendotuta zituzten guda-esi gaŕantzitsuak aŕtu dira. Bereala arerioak guda-esia ustear eman zion.

Paxistaŕak atzeraka ekin ziotenean, guretaŕen etengabeko suaga bide ainbat ildako utsi zituan esi ortan.

Guretaŕak, supean badaude ere, poliki-poliki arerioak iges egiterakoan utsitako guda-tramankuluak artzen dihardute.

Asaltokoak zeuden esia zaintzen.

Ostontzeko guda-oiñetan, guretaŕen joteak auŕera daŕai."

MADRID

Guda-Zaingo'ko Artezkaritzak, gabeko amaŕetan, ifatizkiñez Guda-Zaingo'tik edaŕatako agiria:

"Erdi-aldeko guda-oiñean. Caso de Campo'ko guda-oiñean, kemenez diardute guretaŕak. Gure gudarien eraso gogoŕ eta egokiak buru-galduta usten dute arerioa.

Auŕez artileriak etengabean jardun ondoren, elkardaŕak guda-esi baŕuk asaldatu dituzte eta bertaraiño erdu.

Eskuko bonbakin gudukatzen dute eta areriоak kaltea izan du ugari Paxistaŕen bi tanke zaŕo apuŕtuak izan dira.

Auŕez oldoztutako eraso buruzen egazkiñak lagundu dute asko. Areriоren guda-esietara bonbak ugari jaurti ditu eta, be-beraiño jaixiaz, eraso aska asteko adore guztia oztu.

El Escorial'eko guda-oiñean, gure gudari eŕimeak areriоak ain gogoŕ kiro eutsitako guda-esiak lortuaz, gurendaz ornitu dituzte euren burnak. Bederatzi lagun erdu dira gure gudarien ariera euren izkilu ta guzti. Ostontzeko guda-oiñetan, ezer aipagaŕirik ez."

Alde egiŕera biartuak ixan diran Aŕatia'ko uriŕai

(ZEANURI, AREATZA, GAZTELU ELEXABEITIA TA DIMA)

Or goyan aŕatuten diran urijetako alkate, ziñegotzi, idazkari ta burtzain edo txopeŕai dei egiŕen yake, erdu daŕezala gaur igandez, EUZKADI-BURU-BATZAŔA'ren landolan, Gran Via txaideko 41'gn., 2'gn. etxoñan egingo dau batzaŕera, uri oŕeitako Udal eta biztanlien biaŕkunak eraldu daiguzantzat. — Zeanuri'ko alkatia.

Ondaŕoa'ko U.B.B.

Alderdikide guztiei adierazoten yakoa erdu daiŕzala gauŕ aŕatsaldeko iruretan Ondaŕeta'ko (Arenetako) batzokian egingo dan batzaŕera.

Batzaŕ-gayak garantzitsuak diralako al daben guztioi utsik egin barik atoŕi daitezala eskatzen yakoa.

FRANTZE TA ESPAÑA BITAŔTEKO MUGAN PAXISTAŔEN EGAZKIÑAK

Perpignan.—Paxistaŕen egazkin batzuk frantze-españaŕ muga gaiñean jardun dute egaka.

Españaŕ luŕaldera bonba batzuk jaurti zituzten guda-gintzetara.

Itxasoruntz egin zuten iges egazkiñok.

ESCOCIA'N LANGILEAK OPOŔ

Londres. — Escocia aldean, gintza edo industri lanak uŕitu ta mieztu egin dira, eta langile asko geldi dagoz. 10.000 langilek opoŕ egin dabe. Clyde'n, iru mila dira opoŕtzaleok.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu da bagaesan oi-eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

EUZKO GUDR - ONETAN

(Lenengo oŕitik datoŕ)

zaŕatarik atara eben kañoiak. Geratu barik, atsedenik artu barik jardun eben atzo egun guztian arerioa suagatu eta beragana beruna bialtzen.

Arerioak eztau izan nai berialako baten makurtu eta ixiltzerik eta bere kañoiak eta izkilazkaŕak gori erabili ditu.

URKIOLA-BARAZAR'EN

Alde oneitan, gure gudariak joaldiak-joaldi egin ditue.

Orañarte lez arerioak zer egiten ete eban begira egon barik, arerioa joten eta beragan jarkiten ekin eutsen gure gudariak.

Oraindik iluna zala asi ziran joadiok.

Arerioa gogoŕkiro suagatu ondoren, une egokiak onartuaz, gure mutilak euren lekuetatik urten eta arerioa berietatik atara ondoren euretan sartu dira.

Atzo lortu ziran toki baŕiak gaŕantzi andia izango dabe auŕerako joaldietarako.

Etzan asko auŕeratu. Ez dagigun ukatu. Baña toki onak artu bai.

Arerioak gogoŕ egoala uste aŕen atzeratu beaŕ izan eban, ainbeste ildako bidean lagata.

Biaŕ ba'da ezeban usteko gure mutilak auŕera egiteko adorerik izango ebenik.

Azkenengo joaldiekaz koldartuta eta ikaraluta, ainbesteko adorerik izango ezeban istean egongo zan nunbait.

Baña oraingoan ustiok, oŕelakuak ba'ziran, okeŕ urten dautse.

Atzo ikusi il izan eban.

Gure mutilak, auŕera egiteko agindua artzen eben ordukoxe, adorez eta indaŕez beterik arerioa jo ta bere gibeleraño sartzen zan.

Or doguz beintzat atzo irabazitako tokiak, arerioak miñez itxi biaŕ izan ebazanak.

Eta geroagoko egunei itxaroten gagoz, egunok zer-esan ugari emongo dauskuen ustez.

Gure gudarien adoreak ainbesterik adierazi euskun atzoko joaldi zoriontsuetan.

ORDUÑA ALDEAN

Auŕerako egunetan kañoiak gori-gori ibili ba'ziran alde onetan, atzo alseden artu ebun.

Morteruak lan apuŕ bat egin eben eta izkilazkaŕak be tiroka ekin eutsen. Baña ez sakon, bigun eta makal baño.

Alde onetan gora-berarik ezala egon esan geinke.

EIBAR'EN

Emen biziro eta gori ekin eutsen kañoiak eta morteruak.

Egun guztiak geratu barik sua dariola ibili ziran.

Soraluze'ko guda-lekuak ondo zigoŕtuak izan ziran atzoko egunez.

Gure kañoiak efi oŕelako guda-tokietara zuzentzen zituen euren tiro guztiak.

Kalterik egin ete ebenik ez dakigu. Egingo eben ustea bai.

Biziro, gaŕtsuki eta sendo jokatu zan beintzat gure aldetik.

EGAZKIÑAK

Nun dira egazkiñak?

Itaun auxe egiten zan atzo guda-oñetan.

Paxisten egazkiñak etziran agertu egun guztian.

Ba'dira Madrid'aldera eruan dituela diñoenak, alde aretan eŕepublikaŕak egiten asi dabezan joaldiei eutsi al izateko.

Zer egin danik ez dakigu, baña atzo lez gure aldetik joten egon eta eurak ez agertziak zerbait pentsau eragiten dau.

IZPAR JAKINGARRIAK

ALEMANEN AZKATASUNA

Londres.—Inglateŕa'ko politiko artean ardura biziz diŕa Alemani eta Apirka - egoalde Batzako Gobernuen artian izan diran naspilen goraberak jakin nairik.

Apirka egoaldean dagozan alemanai politika alderdikide izatea galerazi egin bai - dautse nazitaŕ gobernuak, orixe izan da asaŕe bide.

INGELES ZAINTZALEAK, PORTUGAL'ERA

Lisboa. — Asi dira esiadu onetara elduten kontrol-zainketako talde batzuk.

Valenca do Miño'ra, bederatzi ingeles zaintzale eldu dira.

Españar gudako izpaŕak-eta

Madrid'en, egunotan, joaldi bizi ta auŕerakada andiak egin ditue eŕepublikaŕak.-Pozuelo ta Aravaca be galduta daukez paxistak. - El Chimorro mendian paxisten guda-agintaririk geyenak il ziran. - Miaja'ren jardunak.

EGUNOTAKO JOALDIA GOGORATZEN

Madrid.—Arañegun antxitik suagalarien buŕukeagaz asi zan joaldioi. Mila suagatik gora jaurti ebezan eta sail txikira jaurti, be.

Dunbada buŕundadeoi Madrid guztitik entzun zan; Madrid'daŕok ez ziran izutuba-ekien paxistok ingurutik jaurtzeko zana ekiñaldioi.

Uŕengo goizean jakin-miñez ta gero pozez ba zan Madrid'go kaleetan jentea naiko. Eŕkaldaŕ egazkinlariei begira adi-adi egon ziran. Areriuok orain len baizen eŕatz ezin suagatu daikee Madrid.

Gudariak kementsu jokatu eben; egazkiñak aren egoki jokatzen ikusita, ado etsu jo eben. Eŕkaldaŕ egazkiñak beti ibili ziran gaiñean, areriuenekin buŕukatzeko gertu.

Ba da ezpadan atze-aldean laguntzarako gudari talde bereziak ipiñi ebezan eŕkaldaŕ agintariak, baiña oŕein paltarik ez zan izan.

Goizeko saspirak eta erdietan, asaldarion guda-tokietara jo eben eŕkaldaŕak; paxistok aterateko esku-suaga ta aiztoekin buŕukatu beaŕa izan eben toki batzuetan.

Garavitas mendi baŕenera beingoan eldu ziran.

Casa de Campo'n kilometro bateko auŕerakadea egin dabe. Zortziretan Campo de Polo ta Hipodromo sailak eurondu ebezan eŕkaldaŕok.

La Coruña'ko bitxabalez Aravaca'ragiño eldu ziran. Efi-saŕeran egozan ormak eŕkaldaŕen tankeak beingoan apurtu ebezan. Laster eurondu eben efi guztia, be; etxeetatiko jardun eben tiroka paxistok, baiña ankak jaso beaŕa izan eben. Eguardiko amaiketako beste bide kurutz bat be, artu eben oŕ. Lau kilometroko auŕerakadea egin eben.

Garavitas mendi aldetik euken bide batetik ornitzen ziran Ciudad Universitaria'koak; bide oŕi eŕkaldaŕen tiropean dago ta Hospital Clinico'n eta Santa Cristina'ren Eŕuki-etxean ezin iraun izango dabe luzaro.

Carabanchel'en etxeetatik gudatzen ziran; jaurti ebezan baiña etxeok eta Almodovar mendia, be, eŕkaldaŕen mende dago-ta, mendi oŕetatik ibaŕean dago zan Carabanchel Alto ta Bajo eŕkaldaŕon mende dagoz.

Pozuelo ta Aravaca, be, galdu dabez paxistok.

Ciudad Universitaria'n dagozanak urtepide gabe geratu dira ta eŕkaldaŕon mende jausi edo goseaz il beaŕean dagoz. Garavitas ta Almodovar'en paxistok kañoiak atzeratu beaŕa izan dabe. Puente de los Franceses zubi inguruan paxistok ez dabe guda esirik. Puerta de Hierro ta Casa de Campo'n baiño.

Areriuok iges egin beaŕa izan eben eta guda-gai ta guda-tresna asko galdu dabez.

Gagalejos aldetik auŕera egin naia ager tu dabe paxistok. Asaldariok ezin ezer lortu al izan eben eta atze-aldea suagatzen ekin eutsen orduan paxistok.

Hita'n eta Utande ibaŕean areriuon joaldioi eutsi eutsen.

MIAJA'KIN BERBETAN

Madrid.—Arañegun gabaz Miaja'k izpaŕlariei auxe esan eutsen:

"Madrid'go guda oiñetan buŕuka bizi-bizia dogu; Ciudad Universitaria'n eta Casa de Campo'n eukezan bideak galdu dabez areriuok".

INGELATEŔAŔ GUDONTZIA KANTAURI ITXASORA

Londres. — Izpaŕkarien artean zabaldu danez Kantauri itxasora gudontzi aundi bat bialduko dau, itxasoko ibilpideak aldezteko ta salerosketa-askatasuna zaintzeko.

ESPAÑA BAŔENEKO GUDA-OIÑETAN

Andujar.—Bake-eguna gaurkoa. Izkilazkaŕ bi ta pusil batzuk-erakaŕi ebezan paxistei iges egin eutsen gudari-batzuk.

El Chimorro mendian gudari-agintari guztiak il ei ziran eta La Linea'k gudari-agintari nagusia, be, bai.

Cadiz'era oraintsu eldu diran italiaŕak guda-oin oŕetako gudariei laguntzera etoŕi ei-dira. Fuentevejuna ta Peñarroya eŕkaldaŕen mende jausi ez daitezan eldu ei dira italiaŕok. Guda-tokiz ta lubanez azkenengo egunetan artuteko sailak sendotzen diñardu.

MADRID'GO GUDA-OIÑEI BEGIRA

Madrid. — Areriuen mende egon diran etxedi, efi, guda-toki ta mendiak eurondu dabez eŕkaldaŕok azkenengo joaldi onen bidez.

Eŕkaldaŕon joaldioi oŕen gogoŕa izango zanik ez eben uste paxistok, eta beste guda-oin batzuetan eukezan gudariak eta guda-tresna Madrid'go guda-oiñetara ekartera beaŕtu dabez joaldi onen bidez. Egunotan Madrid'en paxista egazkin gitxi ikusten zan; Bizkai'ko guda-oiñetara eruan ebezan, egazkiñez ta suagaz berialakoan bizkaitaŕak koldartuko ebezalakoan.

Orañarte jo ta jo jardun daben guda-oiñetan, be, geratu dira paxistok. Madrid'go astinduak laŕitu dauz ta Madrid aldean atzera ta atzera jaŕaltu ez dagien, beste guda oiñetatik Madrid'era guda-gaiak bialdu beaŕak jo dauz ausago.

Guda-agintarien egingo-asmoak zeatz bete dabez; artutako sailok guda-tokiz ta guda-lubanez sendotzen diñardue orain.

Carabanchel eta Usera etxedian kañoi buŕuka aundia izan zan goizetik guztian; galtze aundiak egin eutsezan paxistoi.

Casa de Campo'n auŕera duaz erkaldaŕak. Garavitas mendi gailuŕ ta mendi-ertzok suagatu dabez erkaldaŕ suagalariak. Garavitas gaiñean sail dagoz oindiñokaŕen paxistok. Iru orduren buruan suagatu ebezan.

Mendi baŕen-samaŕean paxistok ebezan guda-lubanak eurondu dabez erkaldaŕok eta metro batzuk goratxoago daukezan guda-toki sendoan menderatu nai dabez orain. Gartsu ta bulartsu dagoz erkaldaŕok.

Puente de los Franceses sailean izan zan atzo guda baŕukarik gogoŕena. Sail oŕetan guda-tokiak auŕeratuz, bitxabal eta burni-bidea areriоei kentzeko asmoa eben erkaldaŕok eta bete dabe asmooi.

Ciudad Universitaria'n eta Casa de Campo'n paxistok urtepide gabe geratu dira.

Toki oŕetan ordu ta erdiko buŕuka gaŕatz ta latzaren ostean, esku suagaz ta dinamitaz jaurti ebezan lenengo guda-tokiotetik paxistok. Beŕeun metro atzeragi eukezan guda-lubanetan geratu ziran. Gero pu asko ta guda-gai ugari laga dabe bertan bera guda-toki oŕeitan.

Paxistoi artutako guda-tramankuluo' alemandaŕ ta italiaŕak dira ta eurak ira garten dabenez otsailez egiñak.

La Coruña bitxabalean etxe-saila artu eben erkaldaŕok; paxistak erkaldaŕak auŕera uazana ikusi ebenean, iges egin eben.

Egazkin eta suagalariak lanik asko egin dabe.

Garavitas mendia, Puente de los Franceses, Ciudad Universitaria, La Coruña bitxabala suagatu-suagatu egin dabez. Garavitas mendia bost aldiz suagatu dabe.

Asikeran baizen gartsu ta adoretsu gudatzen dira erkaldaŕok.